



ELKARRIZKETA: JON SARASUA KOOPERATIBISMOAREN BALOREEI BURUZ

Arrasate

PRESS

1997ko
Azaroak 27
386. zenb.

IRITZIA
JOXERRA
ZUBIZARRETA

KULTURA
ARRASATEKO
AKORDEOI
LEHIAKETAK

30 GALDERATAN
BEATRIZ
GEREÑU

IKUSPEGIA
ITXARO
ARTOLA

Aitor Lopez Rekarte

Azken bonbat(z)arra!

32. euskal liburu eta disko azoka




Durango 1997

abenduak 4, 5, 6, 7, eta 8
(abenduaren 4a profesionalen eguna)



*Durangoko liburu eta disko
azokaren garraiorik azkarrena.*

Banatzailerik ofiziala

Hirigintza sendo, baina herrigintza, noizko?

Arrasateri zer falta zaion galdetu zidaten aurreko batean. "Itsasoa" erantzuteko puntuan egon nintzen, baina, praktikoa izateko, denon dirua erabiltzen dutenen esku dagoen zerbait aukeratu nuen: kultur gune berriak.

Amaita Antzokia, ederra izateaz gainera, ondo hornituta dago, baina garestia eta handigurakoa da ekintza txiki eta amateurren emanaldietarako. Monterron, barriz, ireki bezain laster geratu zen txiki eskaintzen dituen zerbitzu anitzen-dako. Uneotan, haur eta helduen liburategia, ikasleku, hemerroteka, informatika gela, bideoteka, ekitaldi gunea, pintura tailerra



Itxaro Artola

"Noizko edozein herri mugimendu edo ekimen sortu eta antolatzeko gunea?"

eta erakusketara aretoa ditugu jauregian. Edozein modutan ere, herriko taldeen egoera okerragoa da oraindik. Laurogeigarren hamarkadan hasi eta gaur arte, kultura eta euskalgintzari lotutako elkarte eta eskola franko bultzatu ditu herri ekimenak eta, eguneroko lanaren poderioz, Arrasateko bizitza kulturalaren eta jaien ardatz

dira egun. Gehienek urteak daramatzate, batean Udalaririk libre geratutako jabetzak erabiltzen, bestean ikastetxe zein beste elkarteek utzitako lokalak erabiltzen. Jarduerarako leku ezegoki, behin behineko eta, ondorioz, nortasunbakoetan lan egiten dute sarri. Horren adibide: *Goikobalu*, *Tunantes del Norte* eta *Kakalaldo* antzerki

taldeak. Bien bitartean, eraikina ARKOekin partitzen duten dantza taldeak, txistulariak, gaitero eta konpartsak ez dabilta erosoago. Etorkezun iluna daukatenak ere baditugu. Udala eta frantziskotarrak konbentua -erori baino lehen- konpontzeko ados jartzen badira, batek daki non aurkituko duten hurrengo aterpea *Txalaparta Taldeak*, *Trikitixa Eskolak*, *Margo Taldeak*, *Txatxilipurdiren* ludotekak, *Gaztetxeak* eta bertan kokatutako beste zenbait kolektibo eta sortzailek. Eta, zer esanik ez, *Arrasate Musikalekoak*! Egia esateko, aipatutako guztien baimen barik ari naiz berbetan, baina orokorrean bat etorriko direla somatzen dut. Noizko, hortaz, musika eta dantza elkarteek, artista plastikoek, antzerki taldeek... lan egiteko behar eta merezi duten leku aproposa? Noizko edozein herri mugimendu edo ekimen sortu eta antolatzeko gunea? ■



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetaritza:** Itxaro Zubillaga, Marian Porcel, Patxi Montero. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Maria del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gaztaria Salla, ASA taldea, Eneko Allende, Bessalde M. E., Karmelo Uniberrin, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Malle Barreña. **Banaketa ardura:** Jaseone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ohati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Ignacio Perez.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

386. zenbaki honetan

1997ko azaroaren 28an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen	11/13	30 galderatan	29
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	30/31
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Denborapasak	32
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	20/23	Ikusi eta entzun	33
Astearen errepassoa.....	10	Kulturaren txokoa	26/27	Fotozaharra	34

Ikuspegia

Itxaro Artola **3**

Euren ikuspegitik

Joxerra Zubizarreta **8**

Aurrez aurre

Jon Sarasua **26**

30 galderatan

Beatriz Gereñu **26**

Asteko gaia

Lopez Rekartetarrak **17/19**



Lopez Rekarte familiakok zerbait berezia dute futbolarekin. Aita eta lau semeak jokalaririk izan dira. Txikitatik gaur arte familia horretan bizi izandako giroa ezagutzeko beraiekin izan gara.

28

ostirala

■ ZINEA

Despues de la noche. Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ ELABERRIAREN AURKEZPENA

Juan ignacio Montianok *Zaino* liburuaren aurkezpena egingo du Monterronen, arratsaldeko 7etan.

■ KAFE ANTZERKIA OÑATIN

La tirili taldeak *Queesquese* antzezlan eskainiko du, gaueko 8.30etan, Oñatiko Verduri Hallean.

■ MIKEL LABOA ERMUAN

Mikel Laboaren kontzertua Ermuko zineman, gaueko 10.30etan. *Drogetten iturri* Ermuko aldizkariak antolatuta.

29

larunbata

■ ZINEA

La boda de mi mejor amigo. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ HAUR FOLKLORE MINTEGIA

Gaia: Del juego a la palabra: poesía de tradición oral. Hizlaria: Ana Pelegrin. Haur liburutegian, goizeko 10etatik, ordubata arte.

■ KAFE TERTULIA

Gaia: Egungo gay mugimendua Euskal Herrian. Arrasateko Arrano elkartearen, arratsaldeko 4etan. Antolatzaileak: EGAM eta HBko Gazteak.

■ AL ANDALUS-eko LOKALAREN URTEURRENA

Eguerdiko 1.30etan, luntxa. 3etan bazkaria. 6.30etan *Alegria de la sierra* talde rocieroa 7.30etan *Sueños de Andalucía* dantza taldea eta 8.30etan, *Al Andalus* abesbatz rocieroa.

■ ARTE MARTZIALEN III. JAIALDIA

Musakolako kiroldogian, arratsaldeko 5etan. Sarrera: helduek 500 pta. eta gazteek 200 pta. Antolatzaileak: Arrasateko Aikido taldea, Arrasateko Harreman 3. mundu taldea eta Aretxabaletako Hiruatx, 3. mundu taldea.

sateko Aikido taldea, Arrasateko Harreman 3. mundu taldea eta Aretxabaletako Hiruatx, 3. mundu taldea.

■ ARRASATEKO AKORDEOI LEHIAKETAK

XVIII. Gipuzkoako Txapelketa Amaia antzokian eta X. Gipuzkoako Jaialdia San Frantzisko Xabier ikastolan. Egun osoan.

■ ERROMERIA

Lore Gazteak dantza taldearen eskutik erromeria arratsaldeko 7etatik aurrera Herriko plazan.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Eskizofrenia rock eta *Kaka de vaka* taldeen kontzertua, gaueko 10etan Gaztetxean. Antolatzaileak: AGAKO eta Hies ekimena.

■ ATZERATUEN ALDEKO JAIALDIA ARETXABALETAN

Aratz Aretxabaletako atzeratuen elkarteak antolatuta, Jose Ramon Soroizen *Ume-keriak* antzezlan, Zاراia zineman, gaueko 10etan. Sarrera: 1.000 pta.

30

igandea

■ ZINEA

La boda de mi mejor amigo. Alai zinema 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ III. ARGAZKI RALLYA

Profesionala ez den edozein argazkizalek har dezake parte. Izenematea, goizeko 8.30etatik 9.30ak arte, ASA argazki elkartearen lokalean. Prezioa: 1.500 pta. Goizeko 11etan, hamarretakoa ASA-ren lokalean.

■ EXTREMADURAREN JAIALDIA

Extremaduran izan diren uholdeek eragindako txikizioei aurre egiteko jaialdia. Goizeko 11etatik gaueko 8ak arte, Laubide Plazan. Parte hartuko duten taldeek besteak beste: Arrasateko Corazón de Encina eta Al Andalus, Eibariko Galizia Etxea, Arrasateko Gaiteroak, Trikitixa taldea, Lore Gazteak dantza Taldea.


■ ARRASATEKO AKORDEOI LEHIAKETAK

XVIII. Gipuzkoako Txapelketa Amaia antzokian, eta X. Gipuzkoako Jaialdia San Frantzisko Xabier ikastolan. Egun osoan.



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84



Salmenta eta zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

1 astelehena

■ **ZINEA**

La boda de mi mejor amigo. Alai zinema 7etan eta 9.30etan.

■ **HIESAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Goizean mahai informaticioak jarriko dira. Arratsaldeko 6etan antzerkia Sebero Altuben. 7etan txalaparta eta ondoren giza katea, Tunantes del Norte, trikitixa eta Orkatz taldeko malabaristak.

4 osteguna

■ **ZINEA**

La teniente O'Neill. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ **JON SARASUAREN LIBURUAREN AURKEZPENA**

Jon Sarasua, *Biziaren hizkuntzaz* liburuaren aurkezpena egingo du eta ondoren mahaingurua egongo da Monterronen. Ekitaldia arratsaldeko 4etan hasiko da. Mahainguruko hizlariak: Julen Arexola-leiba, Joxe Angel Irigarai eta Jon Sarasua. AEDK antolatuta.

■ **AUTOESTIMARI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: *Emakumea eta bere autoestima bizitzan zehar.* Hizlaria: Amaia Vazquez. Arratsaldeko 3.30etatik 5.30ak arte. Sarrera: doan. Antolotzailea: EKIN.

■ **SANTAMAS ESKAPARATE LEHIAKETA**

Lehiaketa honetan abenduaren 12a baino lehen, Udaletxeko Kultura sailean izena ematen duten Arrasateko denda guztiek parte hartuko dute. Erakus epea gutxienez abenduaren 15tik urtarrilaren 2ra arte luzatuko da. Kontutan hartuko direnak: irudimena, orijinaltasuna, mezu publizitarioaren balioarritasuna, eskaparaterearen itxuraren kalitate eta Santamas eta gabon giroarekin duen zerikusia. Eskaparaterean ohiko produktuak azaldu beharko dira. Lehen saria: 30.000 pta eta plaka; bigarrena 25.000 pta eta hirugarrena 20.000 pta. Sari banaketa abenduaren 22an, eguerdiko 12etan, egingo da.

■ **MENDI ESKI IKASTAROA**

Besaide mendizale elkarteak mendi eski ikastaroa antolatu du abenduaren 12 eta 13rako. Klaseak 12an, arratsaldeko 7etan Oñatiko Kultur Etxean emango dira eta 13an, goizeko 10etan, Debako hondartzan. Bereziki mendi eskiatzaileei zuzenduta. Prezioa: Besaideko bazkide langabetuendako eta ikasleendako 500 pta. Besteendako 1.000 pta. Federatuek 1.500 pta.

ordaindu beharko dute eta fedaratu gabeek 2.500 pta. Izenematea abenduaren 2an eta 3an, arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte, Besaideren egoitzan.

■ **HANKAPALO IKASTAROA**

Hankapalo ikastaroa abenduaren 13an eta 20an, arratsaldeko 3etatik ilunkada arte, AEDn. Prezioa 1.500 pta. Informazio gehiagorako deitu 77 12 28 zenbakira edo zuzendu AEDra.

■ **GABONETAKO GOZOKINTZA IKASTAROA**

Familia eta Gizarte Heziketarako zentroak antolatuta abenduaren 2an, 4an, 9an eta 11n Gabonetako gozogintza ikastaroa emango da, arratsaldeko 4etatik 5.30ak arte. Emalea: Maria Luisa del Palacio. Izenematea zentroan egin behar da edo 77 04 59 zenbakira deituta. Plaza mugatuak.

■ **EMAKUMEEI LANA TOPATZEN LAGUNTZEKO IKASTAROA**

Bi ikastaro bata formaziodun emakumeendako, eta bestea formaziorik ez dutenendako. Ikastaroak urtarrilaren 2an hasiko dira, baina abenduaren 3a baino lehen izena eman behar da Emakume Sailean edo 79 41 39 zenbakira deituta. Emakume Sailak antolatuta.

2 asteartea

■ **ZINEA**

La boda de mi mejor amigo. Alai zinema 7etan eta 9.30etan.

■ **HITZALDIA**

Gaia: *Erantzunkizuna askatasuna: hezkuntza arazo.* Hizlaria: Amaia Vazquez. Monterronen arratsaldeko 7etan.

Pavimentos AGR
AROSZEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 77 11 20 • Faxa: 77 11 20



IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 28
• Gaeuz: Morales. San Andres.

Larunbata 29
• Gaeuz: Azkoaga. Ferrerías.

Igandea 30
• Gaeuz: Español. Iturriotz.

Astelehena 1
• Gaeuz:

Astearte 2
• Gaeuz:

Asteazkena 3
• Gaeuz:

Osteguna 4
• Gaeuz:

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Igalatorioa . . . 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) . . . 79 39 00
(emakumeak) . . . 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11

Gurutze Gorria
Bergara . . . 76 55 76

DYA
Antzuola . . . 78 71 57

Anbulatorioak
Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
• Espezialitateak . . . 77 05 78
77 12 64
Onati . . . 78 08 52
Eskoriatza . . . 79 98 58
Aretxabaleta . . . 79 74 58
Aramiao . . . (945) 45 51 16

Anbulantziak
Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44

Udaltzaingoa
Onati . . . 78 04 11
Bergara . . . 76 14 69
Arrasate . . . 79 14 39
Aretxabaleta . . . 79 10 52
Eskoriatza . . . 088

Ertzaintza
Arrasate . . . 79 71 99

Suhiltzaileak
Udal taldea . . . 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088

Matxurak
Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62
Gasa . . . 900 40 05 23
. . . 79 78 44
. . . 79 76 78

Garraioak
Taxiak . . . 79 12 22
PESA . . . 902 10 12 10

Hirugarren adinekoendako zentruak
Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
KIUB-OMIC . . . 79 51 55

Monterrongo liburutegia
Monterron . . . 77 01 05

Irratia
Arrasate Irratia . . . 79 58 77

KLIMA ALDAKETA

Giza jardueren eraginak inoiz ere ez dira izan orain bezain kaltegarriak. Horrela bada, krisialdi ekologikoa terminoa erabiltzen da gaur egungo egoera definitzeko. Oraindik orain gertatu diren fenomeno natural batzuetan, klima aldatzen ari den zantzuak ikusten dituzte bai nazioarteko biltzarretakoek eta baita herri-jakinduriak berak ere. 1997ko abenduaren 1etik 12ra bitartean, hain zuzen ere, Kioton (Japonian) klima aldaketari buruzko Batzarren Aldean Hirugarren Biltzarra egingo da, negutegiko gas emisioak egonkortzeko akordioaren bat lortzeko helburuekin.

Filosofia ekonomikoak, bai alde batekoak bai beste-koak, ekonomi hazkunde mugagabearen oinarritu dira, baliabide naturalak agortezinak direlakoan. Alde bietan ere, planetak, oso handia izaki, lurrean, uretan edo airean utzitako substantzia guztiak beregana zitzakeela uste zen, eta bestela, zientziak konponduko zituela sortzen ziren arazoak.

Gaur egun, begi bistakoa da uste horiek okerrak zirela. Hainbat mehatxu global daude gure bizimodu eta ekonomi, produkzio eta kontsumo-antolaketa, hitz batez, zibilizazioaren antolaketa, arriskuan jartzen dutenak. Larrialdiak jo gabe, batzuk aipa ditzakegu: ozono-geruzaren suntsipena, bioaniztasunaren edo bideodibertsitatearen arriskua, deforestazioa, poluzioa

eta izaki bizidun guztien pozoinketa. Baina horietatik guztietatik larriena, beharbada, klima aldaketa izango da.

Klimak eragin handia du gure bizitzan eta naturan. Ez erreparatzeak ez du eragin txikiagoa duenik esan nahi. Bertako klimaren menpe daude hein handi batean fauna, flora, ura, laborantza eta, azken batean, baita gure izateko modua ere. Klimari egokitzearen ondorioz ekosistema ezberdinak sortzen dira eta horiek sistema sozioekonomikoen eraketan eragiten dute. Klimaren eragina argi eta garbi ikusten da nekazaritzan, abeltzaintzan eta basozaintzan. Hain handia ez izan arren, turismoan eta beste industria batzuetan duen eragina ere nabaria da.

Klima aurrizusteko eredu teknikoak oso eskasak dira, galdera ikurra-jartzeko modukoak, baina guztiak bat datoz 2050. urterako tenperaturek gradu 1etik 4ra bitartean igoko dutela esatean. Horrek kalte handia egin diezairoke turismoari; izan ere, estatu espainiarrak dituen hondartzak (3.000 km) desagertu egin daitezke 2050. urterako, itsasoaren maila 8tik 59 zentimetrora igotzearen ondorioz. Elur-turismoa ere desagertu egin daiteke eta ureskasia areagotu.

Behar-beharrezkoa da negutegi gasak gutxitzeko proposamenak egitea. Premiazkoa da "prebentzio" printzipioa aplikatzea Udaletik eta Eusko Jaurlaritzatik.

Mikel Olabe

Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.

- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

- Anonimo, gaitzenez edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.

- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kaleratuko dira gutun guztiak.

- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.


- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna eka-ri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da.

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22


Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Zer irizten diozu dendak domeketan ere zabaltzeari?



Bixente Sagasta
Jubilatua
(77 urte)

Txarto. Domekari bere antza eman behar zaio. Geuk ere domeketan korbata jantzi eta txikitoak edaten ditugu.



Mari Jose Martinez
Langabezian
(19 urte)

Ez diot txarto irizten, denondako hobeto.



Rikardo Zabala
Jubilatua
(71 urte)

Lehen, berdura plaza egiten zen domeketan. Zabalik edo ez, niri parra. Txarra izango da lan egin beharko dutenendako.



Esther Mendaratx
Langilea
(38 urte)

Oso txarto. Beti gabiltza presaka, beti erosten, eta domeketan ere dendak zabaltzen badira, egun bat gehiago gatzatzeko eta urduri ibiltzeko.



Mikel Alustiza
Langilea
(30 urte)

Ondo. Ni behintzat joango nintzateke erosketak egiten.



Dolores Zubia
Etxekoandrea
(57 urte)

Txarto. Domekak beste zentzu bat dauka. Errekaduak lehenago egiteko badago nahikoa denbora.



Jose Gomez
Langilea
(35 urte)

Alde batetik, erosketak egiteko aukera gehiago izango genuke. Bestalde, domeketan lan egin behar dutenei galde-tu behar zer pentsatzen duten.



Clara Martinez
Langilea
(46 urte)

Txarto. Lana astean zehar egin behar da, eta zapatu eta domeketan lasai ibili.

JUBAR
ATEAK. S.L.

- BURDINEZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA AMNIOZENTESIA ANTISORKUNTZA	MENOPAUSIA BASEKTOMIA BULAR PATOLOGIA
--	---

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

USTEAK USTE

Bideoa eta arau berriak

Aste honetan, El Mundoko zuzendariaren "lizunkeriak" jasotzen dituen bideoa gure erredakziora noiz helduko zain egon gara. Baina ez, ez zaigu Pedro Jotaren bideorik heldu, eta egia esan, parra dio. Hori bai, entzun dugunez Arrasatera iritsi da kopiaren bat.

Gaia aldatuz, honezkero jakinean egongo zarete Arrasateko eta inguruko parrokietan hiletei buruzko araudi berria jarriko dela indarrean.

Koroo bat edo bi gehienez; bi hileta egonez gero, biak batera egin... Askotan ez naiz bat etortzen Elizarekin, baina oraingoan ondo iruditzen zaizkit jarritako arau berriok. Hala ere, argi eta garbi dago beste ospakizun batzuek badutela zer aldatu. Hiletetan egon daitezkeen gehiegikeria hori, are nabarmenagoa izaten da jaunartzeetan eta ezkontzetan.

Astigarraga parrokoak berak ezkontza batzuen faltsukeria salatu eta ezkontzak komunitatean ospatu behar direla esan zuen. "Igandoetan, arratsaldeko 7etan"- proposatu zuen Astigarragak adibide bezala. Hori ezarri gero, atera kontuak zenbat bikote ezkonduko den elizan!

Maria Agirre



Gure geroa: gaur egungo hezkuntza proiektua

Joxerra Zubizarreta

Gun hezkuntza munduan modan dagoen gaiaz ari-tu behar dut: "Hezkuntza eta baloreak". Gure bailaran aspalditik jorratuta dugun arlo hau moda-modako bihurtu da.

Hori dela eta, Gizabidea fundazioa harro dago, gure bailaran ezaugarri nabarmenatarikoa izan delako eta oraindik ere badelako. Horrela, gai honen garrantziaz jabeturik, hausnarketa prozesu bati ekin dio, gure hezkuntza proiektua egungo beharrei egokitu nahian. Hori ahalbidertzeko lan talde desberdinak ipini ditu martxan, benetako hausnarketa izan dadin.

Ikastetxe batek duen tresnarik garrantzitsuena bere hezkuntza proiektua da, bertan diseinatzen baita ikastetxe horretan emango den heziketa ereduak. Gure ikastetxeetako hezkuntza proiektuaren aitzindaritasunean oinarrituz, dagokigun protagonismoa gureganatu nahi dugu.

Zeresanik ez dago hez-

kuntza proiektuak inguruan duen gizartean oinarritua behar duela izan eta gizarte horrek protagonista nagusi behar duela izan. Ikastetxeetako organo guztietan hiru eratako partaidetza dugu: kooperatiba, gurasoena edota ikasleena, langileena eta kolaboratzaileena. Horrela, denon partaidetza, ardurak asumitzea eta lankidetzat ziurtatzen ditugu. Era berean, zer esanik ez dago horrek guztiak eskaintzen den hezkuntza kalitatean eragin zuzena duela.

Une honetan gogor aldarrikatu nahi ditugu sarritan oso erraz erabiltzen diren terminoak, gurean guztiz sus-

traiturik daudenak eta indarrean dirautenak. Gurean ez da moda kontua, ez da bete-behar bat, errealitatea da.

• Eskola komunitarioa dugu, denok bazkideak gare-lako eta denok protagonismo nabarmena dugulako. Erronka gurea da eta etorkizuna denon artean landu beharra daukagu.

• Autonomian oinarritutako erabakiak hartzen dituen eskola da gurea. Bertan egosten dira gai guztiak eta eskuartean ditugun baliabideak modu egokian erabiliz, proiektua aurrera ateratzen dugu. Horretarako beharrezkoak diren giza-baliabide guztiak aukeratzen ditugu.

• Balore sendoak dituen eskola bat da, elkartasunean oinarrituta. Bertoko eta inguruko loturekin. Bizitzarako hezkuntza bideratuz, egon daitezkeen eskariei erantzuteko asmoz. Hau guztia, noski, kultura euskaldunetik abiatuta.

Ikastetxe batek duen tresnarik garrantzitsuena bere hezkuntza proiektua da

Joxerra Zubizarreta Hezibideko planifikazio eta komunikazio arduraduna da.

astea bi hitzetan

■ **Eroskin protesta egin zuten sindikatuek**

Abenduaren 6an Hiper Eroski zabalduko dela eta, joan den ostiralean protesta ekin-tza egin zuten ELA, LAB eta CCOO sindikatuek.

Eroskira sartu eta abenduaren 6an boikota egiteko eskatzen zuten orriak banatu zizkieten langileei eta erosleei. Horretaz gain, jaiegunetarako eskubidea elkarrekin defendatzeko proposamena luzatu zieten sindikatuek Eroskiko langileei.

■ **Senideen mozioa onartu egin zen plenoan**

PP izan ezik, gainontzeko alderdi guztiek Senideen mozioaren alde bozkatu zuten asteleheneko, azaroaren 24ko, plenoan. Zigorren 3/4a beteta duten bi preso arrasatearrak, Pedro Guridi eta Jon Agirre, aske

uzteko eskatzen du mozioak.

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladarena, berriz, ez zen onartu. HB eta EB alde agertu ziren, baina PSE-EEko Ignacio Jimenok esan zuenez, horrelako proposamenak Udaltxeko edo Mankomunitateko Ingurugiro sailean aztertu behar dira. Mozioa aurkeztu zutenek lotsagarritzat jo zuten Udalaren "jarrera pasiboa". Beste gauza batzuen artean, Abiadura Handiko Trenaren inguruan dagoen informazioa bildu eta herritarrei jakinarazteko eskatzen zuen mozio horrek.

Astelehenean egin zen plenoan, bestalde, ez zen bake epailerik izendatu. Xabier Zubizarreta HBko zinegotziak galdetu zuen ea noiz izendatuko den bake epailea. Alkateak erantzun

zion hurrengo plenoan jakinaraziko dela bake epaile berriaren izena.

■ **Arizmendi topaketak aurkeztu zituen Gizabidek**

Joan zen ostegunean, Arizmendi Topaketen berri eman zuten Gizabidek. On Jose Mariaren omenez antolatutuzten ekintzak aurkeztu zituzten. Lehendabiziko aldia da topaketok antolatzen direla, eta horregatik, prentsaurrekoa eman zuten fundazioko arduradunek. On Jose Mariaren bidari jarraitzeak duen garrantziaz berba egin zuten prentsaurrean.

Astean, bestalde, Topaketak egin dira. Astelehenean Tenerifeko Pedro Hernandez izan zen hizlari, asteartean Jon Sarasua eta asteazkenean Antonio Cancelo, MCCko lehendakaria.

“ Baina Estatutua, Espainiar nazionalismoentzako diseinatua zegoen eta Hego Euskal Herriko lurraldearen zatiketa (Amejoramentuarekin batera) eta Euskal Herriko askatasunaren aldeko indarren zatiketa izan ziren bere helburu estrategikoak. Horrela, Espainiar nazionalismoak transferentziarekin txantaiatu eta negoziatu egiten zuen Nafarroan eta Komunitate Autonomoan gobernuaren osagarri izateko eta abertzaleen gatazkaren errepresioan zilegitasuna lortzeko. Hemezortzi urte pasatu ondoren 55 konpetentzia transferitu gabe gelditzen dira eta gure esfera sozialari dagozkion transferentziak (segurtasun soziala, enplegua, formakuntza) sekulan ez dutela transferituko baieztatzen dute.

(...)

Historiaren ordua heldu zaigu berriz. Konstituzioa gauzatzekoan itxi egin zituzten ateak zabaltzeko eta ukatuak gelditu ziren Franko garaiko errebindikazio demokratiko eta nazionalak birplanteatzeko une berria iritsi zaigu; autodeterminazioaren eskubidearen inguruan edo euskal subiranotasunaren inguruan, indarrak metatu eta bildu behar ditugarik horretarako. (...)

ANTXON MENDIZABAL

Elkarri.aldizkaria
32. alea



BADAJOSI LAGUNTZEKO JAIALDIA ANTOLATU DA

Badajozeko uholdeek eragindako txikizioei aurre egiteko, jaialdia antolatu du Corazón de Encina elkarteak. Jaialdiaren helburua, batez ere, dirua biltzea izango da. Asteartean emandako prentsaurrekoan, Lau Biden egingo den jaialdiaren berri eman zuten antolatzailerek Arrasateko alkatea bertan zela.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiralean Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Nekaturik edo hankako minez zabilzt?


- Neurriera egindako plantilla bereziak.
- Lanerako zuekoak • Olnetako eroak.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62



Euskal Herrian okela ona dugu

EUSKO LABEL



EUROPAKO ELKARTEAREN
PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUTAKO KANPAINA

Kalitateko Euskal Labelarekin identifikaturik eta ziurtaturik iristen zaio okela kontsumatzaileari

KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN ABELGORRI OKELA

Kalitateko Eusko Labela duen Abelgorri Okela Baimendutako Harategietan bakarrik saltzen da

ARRASATE-MONDRAGÓN

► **LANDALUZE HARATEGIA**
ITURRIOZ KALEA, 7

► **M. AZPILICUETA HARATEGIA**
DOCTOR IBAÑEZ, 10

-**ESPARZA HARATEGIA**
AVENIDA ALAVA, 14

-**JOSÉ MARI SALEGI HARATEGIA**
OLARTE, 20

-**ELORZA HARATEGIA**
JUAN BENGOA, 1

-**J. RAMÓN OTAMENDI HARATEGIA**
FERRERÍAS, 20

ESKORIAZA

-**CARNICERÍA ZUBIA**
SANTA ANA, 11



Etkez-etxeke langileak protesta egiten, Udalak zerbitzua Goizargiri adjudikatu ziola jakin zutenean.

Iritzi desberdinak sententzia beraren inguruan

Etkez-etxeke laguntza zerbitzuaren inguruan kaleratu den sententziaren balorazioa egiteko, joan den ostegunean, hilak 20, CC.OO sindikatuak prentsaurrekoa eman zuen. Desiderio Torres CC.OOeko abokatua oso pozik azaldu zen sententziarekin. Abokatuaren esanetan, sententzian esaten da Udalak eta Bazainek, azken urteetan zerbitzu hori gestionatu duen enpresak, hainbat irregulartasun egin

dutela. Udalari dagokionez, 85etik 87ra, pertsona bat segurtasun sozialean alta eman barik lanean eduki zutela esan zen, eta Bazaini dagokionez, bost langile era ez egokian kaleratu zituela. Prentsaurrean jakinarazi zenez bost langileek kalte ordaina jasoko dute, baina bestetik adierazi zuten, Udalak langileei publikoki barkamena eskatu edo kalte ordaina ordaindu behar diela.

Udaletxeko iturriek jaki-

narazi dutenez, sententzia Udalaren aldekoa da, eta ez du Udala ezertara behartzen. Iturri horien arabera kontuan izan behar dena zera da: sindikatuak subrogazioa lortzeko jo zutela epaitegira. Era horretan, Udalak Goizargiri egindako adjudikazioa zuzena dela, eta beraz, sindikatuen benetako eskaria, subrogazioa, sententziak ez duela onartzen gogoratu dute Udaletxeko iturriek.

Eusko Alkartasunak idatzia kaleratu

Arrasateko EAK idatzia atera du, Armadarekin kolaboratzearen inguruan Arrasateko alkateak egin dituen adierazpenei erantzuteko.

Hiru puntu jasotzen dituen idatzian lehendabizi esaten da, Armadarekin kolaboratzearena Alkateak bere kabuz hartutako erabakia dela. Bigarrenik, EAren jarrera antimilitarista azpimarratu eta gogoratzen da, Armadarekin ez kolaboratzeko erabakia ple-noan hartu zela. Azkenik, gobernu taldea osatzen duen alderdia dela kontutan izanik, oharrak dio EAK ahaleginak egingo dituela Arrasateko Udalak inongo ejerzitorekin kolabora ez dezan.

ATBra egindako adierazpenetan, Jose Mari Loiti gazte guztiei laguntzearen alde azaldu zen, "bai soldadutzara joan edo intsumisioaren bidea hartu nahi dutenei".

Aurten Udalak ez dio Armadari zerrendarik eman, lan hori urtearen lehen hiruhilabetean egin behar da eta.

EMAKUMEA ETA BERE AUTOESTIMA BIZITZAN ZEHAR

Bideo emanaldi eta hitzaldiak

Abenduak 4, 9 eta 18an
15.30etatik 17.30ak arte AEDko lokalean
Amaia Vazquezekin

SARRERA
DOAN!

Informazio gehiagorako deitu 77 12 28 telefonora. Pablo Uranga Kalea, 6. behea

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Emakume Saila ■
ARRASATEKO UDALA



Supermerkatua zabalduko du Mugarrin enpresa alemaniarrak

Lidl enpresa alemaniarrak supermerkatu bat zabalduko du Arrasaten, eta azken horrekin lau izango ditugu herrian. Aste honetan egindako gobernu batzordean, "Lidl Autoservicio Descuento" enpresari obra lizentzia eman zion Udalak Mugarrin pabilioian supermerkatua egin dezan. Pabiloia Mugarrin auto kontseziarioarena da, beraz, lokala alokairuan utziko dio Lidl enpresari. Horretarako, Mugarrin handitu egingo ditu lokalak. Tailerra Mekaruntz luzatu eta erakustokia aurreratu egingo du supermerkatuari lekua egiteko. Supermerkatu berria Mugarrin atzekaldeko pabeloi zurian egokituko da eta 1.000m² inguruko azalera izango du, Dia supermerkatua baino zertxobait handiagoa. Kanpoan supermerkatuaren eta kontseziarioaren bezeroendako 5.600 m²ko aparkalekua egingo da, 110 plazarekin gutxi gora behera.



Udaberri inguruan zabalduko da Lidl Supermerkatua.

Mugarrik pabeloia barne zatiketa egin eta gero, Lidl enpresaren esku egongo da komertzioaren egokitzapena. Obrak ez dira oso astunak izango, beraz, supermerkatu berria udaberri inguruan zabalduko da.

Lidlen iharduera komertziala alimentazio eta etxeko produktuetan oinarritzen da. Lidlen berezitasunak esne produktuak, arraultzak, kontserbak, izoztuak, olioak eta

drogeriako produktuak dira: guztira, 500 bat erreferentzi inguru.

Beste supermerkatu batzuk alderatuta, Lidelen funtzionamendua desberdina da. Produktuak guztiz manufaturatuta etorriko dira, hau da, alde zurretik pisatuak eta enpakatuak. Biltegian probisio gutxi gordeko da, kamioi bakarrarekin eguneroko horniketa egiten da eta.

Hiper Eroskiren aurkako erasoak

Joan den asteazkenean, goizeko zortzirak eta zortzi terdiak bitartean, Arrasateko Hiper Eroskiko karro batzuk erretuzten gasolinaz busti ondoren. Eroskiko gerenteak adie-

razi zuenez, 30 edo 35 bat karro erre ziren eta zaintzaileak ezin izan zuen ikusi zenbat lagunek burutu zuten erasoak.

Arrasate Telebistara egindako dei anonimo baten bidez,

pertsona batek beregain hartu zuen sabotaje ekintza. Erasoak, abenduaren 6an Eroskik supermerkatua zabalteko hartu duen erabakia salatzea zuela helburu esan zuen.

Jaiotzak

- Lidia Mosquera Renda. Azaroaren 6an
- Markel Barbero Chaves. 11an.
- Ainhoa Eriz Micieces 11an.
- Nerea Perez Dominguez 12an.
- Patxi Urrutia Miguel. 14an.
- Ainhoa Aranburu Pinillos. 17an.
- Gorka Oñederra Larrañaga. 19an
- Gorka Berezibar Herrarte. 22an

Ezkontzak

- Juan Carlos Parra Rivas eta Maria Begoña Gonzalez Cabrera. Azaroaren 12an.
- Carlos Alberto Cespedosa Garcia eta Miren Olatz Azkarraga Mendizabal .17an.
- Josu Pereda Lezeta eta Miren Arantzazu Axpe Ayastuy. 22an.
- Ricardo Santa Cristina Amanz eta Maria Luisa Milan Sanchez. 26an.

Hildakoak

- Calixto Quintana Pujana. Arzoaren 11an. 92 urte.
- Basilisa Muñoa Vitoria. 14an. 90 urte.
- Emeteria Altuna Lizarralde. 14an. 86 urte.
- Agustin Perea Suso. 16an. 80 urte.
- Justo Ayerbe Iñurriagarro. 18an. 97 urte.
- Maria Begoña Landa Urrutia. 21ean. 65 urte.
- Miguel Vazquez Mercader. 23an. 72 urte.



JAKION

Deba Garaiko Baserriko Barazki eta Fruta Kontserbak
Conservas de Fruta y Verdura de Caserios de la Comarca del Alto Deba

JAKION S.L. • San Miguel plaza, 4 etxabea.
20530 Leintz Gatzaga • Gipuzkoa
Tfnoa: (943) 71 46 86 • Faxa: (943) 71 46 21



Honako denda hauetan salgai

- Landaluze Harategia Iturriotz, 7
- Libe Mendizabal Magdalena Kalea, 27
- Agirre-Etxe Harategia Zarugalde, 33
- Jose Elorza Joan Bengoa, 1
- Salegi Harategia Olate Kalea, 20



Ipek Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

Domekan sartuko dira indarrean hiletetarako arau berriak

Hileta ospakizunetarako araudi berria prestatu du Leintz Bailarako Artziprestaldeak, eta Arrasateko parrokia guztietan domekan sartuko dira indarrean.

Alde batetik, Parrokiak ez ditu hiletak kobratuko nahiz eta eskupekoak onartuko diren. Jose Mari Astigarraga parrokoaren esanetan, Eliza ez da zerbitzuak saltzen dituen enpresa bat, eta beraz, ez da ezer ordaindu beharko.

Araudian jasotzen denez, gainera, hileta ez da hildakorenen senitartekoei bakarrik dagokien arazoa, kristau elkarre osoarena baizik. Astigarragaren berbeten, "Elizan sartzean gorpua komunitatearen esku uzten du familiak eta behin ospakizuna eginda, berriro ere senitartekoei dute erantzunkizuna. Beraz, hiletak Elizak duen araudiari jarraituz egingo dira, eta ez



Arrasateko Parrokia guztietan jarriko dira indarrean arau berriak.

familiak gura duen moduan. Hori kontutan izanda, Elizak hildako guztiei ospakizun berdina eskainiko die".

Zeresana ekar dezaketen neurri batzuk ere finkatu dituzte, adibidez: eliza barrura lorekoro bat edo bi besterik ez dira sartuko eta gainerakoak kan-

poan utziko dira, parrokiako abesbatzak kantatzean ez du bereizketarik egingo, eliza barrura ikurriña eta antzerako sinboloak ezin dira sartu eta berdin dantzari eta txalapartariak. "Arau horiekin, Elizan behintzat hileta guztiak berdina izan daitezela lortu nahi

dugu" dio Astigarragak.

Bukatzeke, egun berean komunitate batean bi hileta egin behar badira, biak batera egingo dira. Parrokiak azaldu duenez, orain dela urte batzuk hasi ziren neurri hori indarrean jartzen, eta familia batzuk onartu eta beste batzuk gaizki ikusi izan dute. Astigarragaren ustez, denak komunitateko bereko kide izanik ez da zilegi bi hileta egitea. Bestalde Garizuma, Pazko eta Abenduko igandetan hiletak meza gabekoak izango dira. Parrokoaren esanetan, serioak eta ordu erdi ingurukoak, baina meza gabekoak.

Hiletan inguruko arauak unibertsalak dira, baina Gipuzkoako Gotzaitegiak 96an egokitu zituen honako. Urte beteko eztabaidaren ostean, Leintz Bailarako Artziprestaldeak arauak indarrean jartzea erabaki du.

Urbanizazioa aurrera Kontzeziñon


Asteazken goizean Kontzeziñoko Norte tailerra bota zuten. Eskabadoraren indarra nahikoa izan zen denbora gutxian eraikina behera botatzeko.

Astelehenero plenoan onartu zen ahobatez Kontzeziñoko konpentsazio proiektua. Denbora galdu barik, behar ez diren eraikinak botatzen hasi dira. Aurrerago beste eraikin batzuk ere botako dira Kontzeziño inguruan.



BONBA TALDIE SALAMANCARA

Sarritan jotzen dute Anoeta aldera Bonba Taldekoek. Joandako astebukaeran, berriz, Salamancaraino joan ziren Realaren partidua ikustera. Salamancan hiru izarretako hotela eta polizia nazionalaren eskolta izan zuten Bonba taldekoek. Tamalez, partidua ez zen oso ona izan baina Gaztelako hiriburuan sekulako giroa dagoela ziurtatu zuten.



BRAD PITT EZ DA GUGENHEIMERA JOAN DEN BAKARRA!

La Merced Ikastetxeko DBHko ikasle talde bat ere han izan zen museoko artelanak ikusten. Gainera, Bilbora egindako bisitari aktore estatubatuarrak baino etekin handiagoa atera zioten. Arriaga Antzokian *West side story* antzerkia ere ikusi zutelako. Argazkian ikusten denez, dagoeneko Pupy txakurrari loratxoak irten zaizkio.



BUZKANTZAK ALKARTETXEAN

Arrasateko Eusko Alkartasunak urteroko bazkaria egin zuen joandako zapatuan. Lagun ugari elkartu zen ardia eta buzkantzak jateko. Itxura denez, izugarri gustatzen zaizkie Garagartzako mortzilak Alkartetxekoei, 600 buzkantza prestatu zituzten-eta sukaldean.



OPERAK SEKULAKO ARRAKASTA

lortu zuen San Viatorreko neska-mutilek antzetzutako Mari Errauskin operak. Juanito Arzamendiren batutapean, 200 lagun inguruk lehen opera euskalduna taularatu zuten zapatuan eta domekan Amaia Antzokian.

Bi emanaldietan antzokia goraino bete zen. Ikusleak hunkituta eta antolatzaileak pozez gainezka. Bi urteko lanak merezi izan du, Mari Errauskinen istorioan bezala, azkenean dena ondo irten da eta.

Eta lana egin ondoren atsedena. Afari jendetsua eta alaia izan zuten operan parte hartu zuten guztiek. Behin urduritasun momentuak ahaztuta, ondo baino hobeto ospatu zuten Mari Errauskinek izandako arrakasta.

IZENAK

Juan I. Montianok

idazle arrasatearrak, bigarren elaberria, "Zaino", aurkeztuko du gaur, hilak 28, Monterronen.



Miren Lorea Lana

izendatu dute Uribarri Erguingo auzo alkate Ismael Gonzalez ordezkatu du 32 urteko arrasatearrak. PSE-EEko kidea da Miren Lorea.

Eskola

Kontseiluetarako


Udal Ordezkarri

berriak asteleheneko plenoan izendatu ziren. San Viatorreko ordezkaria **Jabier Aresti** izango da, La Merced-ekoa **Andoni Bedialuneta**, Batxilergo Institutokoa eta San Andres eskolakoa **Ismael Gonzalez**, Eskola Politeknikokoa Juan Antonio Barriocanal, San Frantzisko Xabierrekoa **Jabier Nafarrate**, Umezaintzako **Joseba Ugalde** eta Musakolako eskolakoa **Angel Tijero**. Erguin eskolarako eta Almen ikastolarako asteleheneko plenoak ez zuen izendapen berririk egin.

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE




Rent a Car

Alkilerreko autoak:
Twingo, Clio, Mégane,
Laguna, Espace...

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

MECA

EZ DAGO PAREKORIK.



omu keramikak

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: (943) 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Otalora, 1 behea • Tel.: 79 07 20 • ARRASATE

FRAIKIINTZARAKO MATERIALAK

Lopez Rekarte familia

Futbol jokalarizateko jaioak

Aita-amak eta lau seme osatzen dute Lopez Rekarte sendia. Familia arrunta ematen du, baina Lopez Rekartetarrek badute berezitasunik. Luis, aita, lehen mailako futbolaria izan zen. Juncalekin lau seme izan zituen eta horietatik bi futbolaren gailurrera heldu dira, eta beste bat bigarren mailara. Lopez Rekarte abizenak entzutean futbol mundua datorkigu burura eta jende askok abizen bakarra dela uste duen arren, aitaren eta amaren deiturak dira.

Juncalekin ezkondu eta urte batzuk geroago futbola utzi zuenean, Luis Lopez familiako buruari burutik pasatu ere ez zitzaion egin semei esker berriro futbolarekin hain lotura zuzena izango zuenik. Bikoteak lau seme ditu: Luis Mari, Jose Ignacio, Rikardo eta Aitor. Denei txikitari egin dieten jostailu politena baloia izan da. Gurasoek ondo gogoratzen dute semeek baloiarekin zuten harreman estua, "Luis Mariker bait borobila ikusi eta ostikoak ematen zizkion: latak, baloia... benetan bitxia zen bere portaera. Aitor ere, ume koxkortxoaren zetik baloiaren atzean ibili izan da. Gainera,



Luis eta Aitor, aita eta seme gazteena, biek futbola daramate bihotzean.

zeozergatik ostikorik ezin bazion eman, haserretu egiten zen". Aitaren esanetan, semeek baloiarekin izan duten lotura berezkoa izan da. "Nik sekula ez ditut semeak behartu baloiarekin ibiltzera, ezta futbolista izatera ere. Umetan, esate baterako, futbolerako baino atletismorako hobea zirudien

Luis Mari". Juncalek ere ezin du ahaztu Luis Mari Arrasateko lasterketan irabazitako koparekin etxeratu zen eguna. Bere urtebetetze eguna zen eta izugarrizko poza hartu zuen.

Seme nagusia den Luis Mari UDAn, Alavesen, Realean, Bartzelonan, Deportivon eta Mallorcan jokatu du. Fut-

bola aurten utzi du, belaunean izandako lesio bat dela tarteko, eta esaten du ez zaiola gogorra egin. Jose Ignacio, "Kote", Mondran, Eibarren eta Alakanteko Origuelan ibilitakoa da. Honek ere aurten utzi du futbola eta orain beste lan batean dabil. Rikardo, berri, Zaldibarko baloiarekin ibiltzen

da ostikoka. Aitor, gazteena, 12 urterekin Mondratik Realera joan eta lehen taldeko jokalaria da gaur egun.

SEMEEN EZAUGARRIAK

Jokalaria moduan semeak zelakoak diren jakiteko, aitari galdetu behar, jakina! "Luis Marik defentsan jokatzen zuen. Azkarra, teknika onekoa eta oso kemetsua zen. Jose Ignacio ezaugarri oso oneko aurrelaria izan da; goletzaille eta errematatzaile trebea, baina beste biek ez bezala, ez zuen lehen mailara saltoa egiteko zorterik izan. Azkenik, Aitor oso teknikoa da eta baloia hantetan duenean ederto jokatzen du". Une honetan futboleko dabilen bakarra Aitor denez, Koteri eta Luis Mariri anaia txikia zelan ikusten duten galdetu diegu. Luis Marik Aitorren kualitate tekniko eta fisikoak azpimarratu ditu, eta futbol munduan urruti heltzeko psikikoki eta teknikoki oreka izatea dela garrantzitsuen esan digu. Koteren ustez, Luis Mari eta beraren arteko nahasketa da Aitor.

Teknikoki hirurak onak baina futboleko jokatzeke orduan elkarren oso derberdinak dira, aitak dioen bezala. "Jokalaria moduan nire antzik ez dute, baina ni bezala, hirurak ondo moldatzen dira eskumaz zein eskerraz eta hori ez da ohikoa izaten".

AITA ETA ENTRENATZAILEA

Luis Lopez lehen mailako jokalaria ohia lau semeren aita eta entrenatzailea izan da. Mondran bere seme Jose Ignacioren misterra izan zen. "Entrenatzaile izan nuen eta asko eskatzen zigun. Ni bere semea izan arren, ez nuen tratu berezirik. Aitak gainontzekoei baino gehiago eskatzen zidan, eta ni su eta gar ahalegintzen nintzen. Sasoi hartan soldadutza egiten nabilen, eta entrenatu ezik, bankiloan uzten ninduen. Haiek urte

onak izan ziren niretzat; baita Mondrarendako ere, ondo zebilen eta".

AMARENDAKO SEMEAK BETI SEME

Aipatu dugun moduan, Lopez Rekarte anaiak desberdinak dira futboleko eta gurasoek dioten legez, izakeran ere bai. Juncal eta Luis oso harro daude euren lau semeekin. Hala ere, aitortzen dute ume bihurriak izan direla. "Trasto batzuk izan dira, baina urteekin aldatu eta formaldu egin dira". Juncalek aitortu digunez, buru gogorrena nagusia izan da. "Luis Marik hau egin behar dut esan eta egin arte ez zuen atsedetik hartuko. Aitor berdintsu dator. Konstantzia horri esker lortu du nagusiak futboleko goraino heltzea".

Lopez Rekarte familian poztasunak asko izan badira ere, gurasoen babesa ezinbestekoa izan da semeendako, eta horrelakoetan, jakina, ama beti ama! "Lehen mailara igotzeko momentu txar asko igaro behar ditu jokariak. Horrelakoetan derrigorrezkoa da guraso eta lagun babsa. Une txarrak oso luzeak dira; onak, berriz, laburrak. Gainera, ez da ahaztu behar bidean jokalaria asko gelditzen dela, eta horrek pena handia ematen dit" - dio Juncalek. Bai momentu onetan eta bai txarretan, Aitor, Luis Mari, Rikardo eta Jose Ignaciok gurasoen laguntza eta aholku onenak jaso dituzte. "Semeekin oso zorrotza izan naiz, gauzak ondo egin ditzaten. Baina laguntza behar izan dutenean hortxe egon naiz" diosku Juncalek. Aitaren aholku errepikatuena, berriz, hau da. "Nik behin eta berriz esaten diet ez pentsatzeko egiten ari direna bukatu dela, beti dago eta zer ikasi eta zer egin".

Luis Mari, Jose Ignacio eta Rikardo, anaia txikiari, Realeko jokariari, ahalik eta laguntza gehien ematen saia-



Lopez Rekarte familia osoa duela urte batzuk.



Luis Lopez, aita.



Luis Mari, lehen mailako jokalaria ohia.

Luis eta Juncalen semeetatik gaur e jokatzen. Realean titulartasunort aniek Aitor onenen artean nahute jarraitzen badu, lortuko duela



Jose Ignacio, 2. mailako jokalaria ohia.



Aitor, Realeko jokalaria.

gaur egun Aitor bakarrik dabil
 portu du 22 urterekin. Guraso eta
 zute, eta orain bezala gogotsu
 an daude.

tzen dira. Gertu- gertutik jarraitzen diote eta ahal dutenean partiduak ikustera joaten dira.

SEMEAK ETXETIK KANPO GAZTE-GAZTE

Jose Igancio etxetik gertu egon da Alakantera joatea erabaki zuen arte. Luis Mari eta Aitorrek gazte-gazteak zirela utzi zuten gurasoen etxea. Hori dela eta, gurasoak nahiko txarto pasatu zuten. Luis Mari 16 urterekin Gasteizera joan zenean, Juncali gogorra egin zitzaion. "Gasteiz garai hartan urruti zegoen, eta pentsatzen nuen semea gazteegia zela bera bakarrik bizitzeko. Aitor 12 urterekin joan zen Donostira, baina puntuan behin berekin joaten ginenez, ez zen hain gogorra izan".

ANAIEN ARTEKO HARREMANA

Anaien arteko harremana zela-koa den galdetzean, Aitor, Jose Ignacio eta Luis Mari esan digute sana, normala dela; haserretu egiten dira, baina era berean elkarri lagundu egiten diote. Aitor anaia guztiekin ondo konpontzen den arren, Rikardorekin izan du harreman estuena, beharbada, etxean logela konpartitu dutelako eta luzaroan egon direlako batera.

Aitorrek anaia nagusia idolo izan du betidanik, eta pena handia du elkarrekin edo elkarren kontra ez dutelako inoiz jokatu. Luis Mariri ere gustatuko zitzaiokeen Aitorrekin jokatzeari, baina berak adierazi digun legez, luze itxaron dio eta azkenean futbola utzi behar izan du belauneko lesioagatik. Kotek, berriz, anaia nagusi-ena lehen mailako jokalaria izateak ez diola lagundu uste du. "Izan naizen taldeetan asko exijitu didate, anaia lehen mailan nuelako. Egia esateko, ez da batere lagungarria izan niretzat, beti parekatu egiten gintuzten eta".

Jokalarien etxean futbola-

ri buruz hitz egitea logikoa da eta Lopez Rekarterenean, beste hainbeste. "Berriketaldi luzeak izaten ditugu, baina haserretu barik. Aitorrek parte hartzen duen jokaladietan, arazorik gertatuz gero, iritzian bat etortzen gara normalean. Futbolaren gainean ideia berdintsuak ditugu".

Luis eta Juncalen semeetatik gaur egun Aitor bakarrik dabil jokatzeko. Realean titulartasuna lortu du 22 urteko arrasatearrak eta partiduz partidu jokalaria garrantzitsua bihurtu daitekeela erakusten ari da. Guraso eta anaiek Aitor onen artean ikusi nahi dute, eta orain arte bezala gogotsu jarraitzen badu, lortuko duela daude. Dena dela, etxe-koek garbi daukate gazteena hasi baino ez dela egin. Futboleko goi mailara heltzea bezain inportantea da maila horretan irautea. Horregatik, bene-benetako lana hemendik aurrera egin beharko du Aitorrek, eta lan hori egiteko ilusioa eta gogoia behintzat ez zaizkio falta.

Zelaian daukan onena ematen saiatzen da Aitor aste-kaerero eta Anoetan jokatzeko duenean etxe-koak harmailetan izaten ditu animoak ematen. Beste semeekin esperientzia izan arren, aita eta ama oraindik urduri jartzen dira partiduetan. "Semea jokatzeko ikustean beti jartzen naiz urduri; urduritasuna ez da urteekin joaten den zerbait".

Urduri edo ez, Lopez Rekarte familiakoek urte dextente jarraituko dute futbolari lotuta. Etxeko gazteena futbolaren mundu nahastuan toki bat bilatzen ari da. Lehen urratsa primeran eman du, eta horrela jarraituz gero, ondorengoak ere ez dira makalak izango. Luis eta Juncal bi iloba dituzte eta hirugarrena bidean dator. Ea ba ilobek ere futboleko goiari eusten diote.

Itxaro Zubillaga

Eskubaloiko jokalaria

NEREA GREDILLA

“Jokatzeko eskubaloia gustatzen zait eta ikusteko futbola”

— Zer ezaugarri eduki behar dira eskubaloian jokatzeko?

— Ondo jokatzeko, indarra, teknika menperatzea eta azkartasuna.

— Zer berezitasun dauka eskubaloiak?

— Nik batez ere kirola egiteko eman nuen izena eskubaloian. Dena dela, jokatzeko gehien gustatzen zaidan kirola da; ikusteko, berriz, futbola.

— Jokatu duzuen partidu onena eta txarrena?

— Onena, Zarautzen kontra. Gol bategatik galdu genuen, baina taldeak ondo jokatu zuen. Txarrena, aurre-denboraldian, Aloñamendiren kontra. Lehen neurketa zen eta 35 -1 galdu genuen.

— Taldearen helburuak?


— Hasi berriak gara, partidu bakarra irabazi dugu, beraz, sailkapenari begira ezin aspirazio handirik izan. Hala ere, gure helburuak hauek dira: batetik, Arrasaten eskubaloiko emakume taldea izatea; eta bestetik, kirol honetan ahalik eta gehien sakontzea. Datorren urteetan jarriko ditugu helburu zehatzak.

— Urduri jartzen zara partiduetan?

— Oso, gainera, bukatu arte egoten naiz urduri.

— Zer moduz entrenatzailearekin?

— Jatorra da eta ondo erakusten du. Astean bi bider entrenatzen dugu, eta hasi berriak garen, batez ere teknika lan-tzen dugu.




ESKUBALOIA Baja barik Iturripen



Arrasate eskubaloitaldeak baja barik egingo dio aurre Pasaitarra taldeari.

Norgehiagoka domekan, eguerdiko 12etan, hasiko da. Pasaitarra taldekoek aurreten igo dute bigarren mailara. Taldea beterranoa eta esperientzia handikoa da, indartsu jokatzeko dute eta bukaera arte atsedetik hartzen ez duten horietakoak dira. Horretaz gain, atezaina ona daukate. Jokalarien artean Trocador jaurtitzailea aipatu behar, taldeko goletzailerik onena izaten da eta partiduetan. Arrasatearrak, garaipena lortzeko, hasieratik mistak egiten hasiko direla esan digu entrenatzaileak. Helburua aurkako taldearen jaurtitzaileak geldiaraztea da. Herreroek ezarri nahi duen sistemaren arabera, Arrasatek defentsa sendoa ezarriko du eta jokalarien azkartasuna aprobetxatuz, ahal dutenero erasora joko dute.

SASKIBALOIA Bigarren buelta



Saskibaloitaldearendako bigarren buelta hasiko da aste bukaeran.

Aurrean Logroñoko San Bernabe taldea izango du Errioxako Maristak kiroldegian, domekan, eguerdiko 12.30etan. Arrasatek lehen bueltan partidu bakarra irabazi zuen, eta San Bernaben kontra izan zen. Arrasatearrak 87 eta 77 nagusitu ziren Iturripen. Domekan garaipenaren bila joango dira, baina ez dute lehen bueltan bezain samur izango. San Bernabe taldeak jokalaria gazte eta oso altuak ditu. Gaur arte bost neurketa irabazi dituzte eta lau galdu.

Arrasatek ez du bajarik izango partiduari aurre egiteko. Bestalde, jakin dugu Mikel Asensio jokalariaik, arazo batzuk tarteko, taldea utzi duela.

FUTBOLA Azken sailkatua Atxabalpen



Preferente mailako Mondrak azken bost ihardunaldietan ez du garaipenik

lortu, eta hiru puntu baino ez ditu eskuratu. Domekan, hilak 30, arratsaldeko 3.30etan, azken sailkatuaren bisita jasoko dute Atxabalpen. Zarautzek 12. ihardunaldira arte ez du partidurik irabazi. Itxuraz, beraz, Mondrak ez luke arazorik izan behar puntuak eskuratzeko. Hala ere, Jesus Mari Barrutiabengoak oraingoan ere, baja ugari izango du: Oxel, Luengo eta Zulue-ta lesionatuz gain, Otxoak eta Aritzek ezingo dute jokatu, zigortuta daudelako. Asier Lopez eta Golo, berriz, jokatzeko moduan izango dira. Mondrako emakumezko taldeari dagokionez, hauek atsedena izango dute asteburu honetan.

RUGBYA Durango arerio



Patxi Gorosabalen mutilek Durango izango dute aurrean nor baino nor zapatuan, hilak 29,

arratsaldeko 4etan, Garagar-tzan. Gastedin kontra galdu eta gero, garaipen gosea dute arrasatearrek. Durango talde sendoa den arren, irabazteko aukerakoa izan daitekeela uste dute herriko jokalariek. Arrasatek orain arte bi partidu irabazi ditu, Sestao eta Arratiako Zekorren kontra.

Xabier Mentxaka eta Mari Jose Gil maratoian aipagarrienak

Joan zen zapatuan korritu zen Donostiako Maratoian, 16 arrasatearrek hartu zuten parte. 42 kilometroko proban guztira 1.200 korrikalarik egin zuten takarradan eta 1.000 lagunek bukatzea lortu zuten. Arrasateko ordezkarien artean bi izen aipatu behar: Xabier Mentxaka eta Mari Jose Gil. Mentxakak 2 ordu eta 40 minutuko denbora hobetu zuen. Mari Jose Gilek ere, bere denbora hobetu zuen. Bere marka 3 ordu 43 minutu eta 39 segundukoa bazen ere, Donostian 3 ordu, 30 minutu eta 57 segundukoa lortu zuen. Gainera, gutxiatik ez zuen gainditu Pili Valdezate arrasatearrak 1993an ezarritako errekorra: 3 ordu

Postua	Izena	Denbora
68.	Xabier Mentxaka	2 ordu 38 minutu
105.	Lusi Mari Ugarte	2 ordu 43' 6"
120.	Jose Luis Ugalde	2 ordu 44' 6"
390.	Jon Gascon	3 ordu 4' 30"
425.	Jose Luis Aroiabe	3 ordu 7' 30"
567.	Jon Zubizarreta	3 ordu 16' 23"
568.	Pedro Zalama	3 ordu 16' 24"
569.	Jon Ramos	3 ordu 16' 25"
570.	Lorenzo Alonso	3 ordu 16' 26"
572.	Jose Daniel Zubillaga	3 ordu 16' 27"
713.	Manuel Silvar	3 ordu 26' 55"
745.	Mari Jose Gil	3 ordu 30' 57"
752.	Tomas del Rio	3 ordu 31' 40"
820.	Enrike Mazmela	3 ordu 40'
869.	Isidro	3 ordu 44' 20"
879.	Jon Bergaretxe	3 ordu 47'

28 minutu eta 58 segundu. rren denborak goiko taulan Gainontzeko arrasatea- jasota daude.

Igerilariak txapelketa Azpeitian

Arrasate igeri taldeak Azpeitiko txapelketan hartuko du parte, zapatuan, hilak 29, arratsaldeko 4etan. Proba Gipuzkoako txapelketara joateko baliogarria izango da. Horrek esan nahi du, igerilariak marka onenak lortzen saiatu behar du dela. Arrasateko taldean, dagoeneko, lau igerilari lortu dute Gipuzkoako txapelketara joateko gutxienezko denbora: Jone Etxeberria, Naiara Corcuera, Amaia Rodriguez eta Izadi Mondragonek.

Karatekek beste erronka bati aurre egin behar

Saioa karate eskolako kade-te eta juniorrek Usurbilen jokatu den Gipuzkoako txapelketan izango dute zita, domekan, goizeko 9etan. Iñaki Muñoz entrenatzaileak 10 neska mutil eramango ditu. Kadeteetan Arrasateko ordezkariak honako hauek izango dira: Jorge Sanchez, Aitor Etxeberria, Sandra Alvarez, Alaitz Aranburuzabala eta Garbiñe Tera. Juniorretan, Iker Zabarte, Erik Martin, Angel Alonso, Unai Valor eta Tamara Martinez.

Arrasatearrak lehenengo lauen artean bukatu behar dute Euskadiko txapelketara joateko txartela eskuratu ahal izateko.

Euskadiko Karate txapelketa Arrasaten izango da abenduaren 14an. Saioa karate eskolak antolatu du Euskadiko Txapelketa.

Baque eta Santamas txapelketak

Arrasateko lau pilotari eskuz banakako Baque torneo ari dira jokatzeko. Kadeteetan Dominguez eta Etxeandia dira herriko ordezkariak; jubeniletan, Lazkano eta Belategi. Dagoeneko final laurdentan daude, beraz, hemendik aurrera jokatzeko dituzten neurketak erabakiorrak izango dira. Bestalde, zapatuan, hilak 29, infantil mailako Santamas txapelketako partidua jokatu dira Iturripen, arratsaldeko 3.30etatik aurrera. Aurrez aurre pilotari hauek izango dira:




Santamas txapelketako partidua jokatu dira astebukaeran.

Salegi - Masip
Zabalao - Balzategi
Mertxan - Etxeberria

zuazua - Lezamiz
aroiabe - ortueta
Basarte - Jimenez II

Agirre - Ugarte
Abasolo - Carrillo
Axpe - Akizu.



Bastebukaera lasai
igaro ondoren, 8.
ihardunaldian
berriro iskanbilak
Zaldibar txapelketan, eta
berriro ere antolatzaileek
neurri zorrotzak hartu
behar. Betiko kontuak ez
du bukaerarik!

Normaltasuna hautsi

Laburrak

■ EPEH TALDEARENDAKO ZIGOR GOGORRA.

Epeh eta Jey Holigans talde-
en arteko norgehiagokan iskan-
bila, sarrera gogorrek eta tan-
gana egon ziren. Partidu buka-
eran Epeh taldeko David
Naranjo jokalaria antolatzaile-
le batengana joan eta kolko-

tik heldu zion. Antolatzaile-
ek astelehenean talde biek
berba egitea erabaki zuten.
Bilerara Jey Holigansekoak
azaldu baziren ere, Epehkorik
ez zen agertu. Azken talde
honek 10.000 pezetako fian-
tza galdu eta bi puntu gutxia-
gorekin gelditu da. Horretaz

gain, David Naranjo jokalaria
txapelketatik kanpo utzi dute.
Gainera, ez du Uribe auzoa
txapelketan parte hartzerik
izango.

■ BI ZUBI ZALDIBARREN

Abenduan bi astebukaeratan ez
da Zaldibar txapelketa joka-

tuko. Abenduaren 6tik 8ra
arteko zubian jokalariek jai
izango dute, eta baita 27-28
astebukaeran ere. Aurten tal-
de gutxiago dagoenez, anto-
latzaileek, beste urteetan ez
bezala, zubietan jai hartzea
erabaki dute. Eskertuko dute
joakalariek, bai horixe!



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Sailkapenak

Emaitzak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	8	8	0	0	58	16	16
Branka Taberna	8	6	1	1	31	20	13
Sokoakoak	8	6	1	1	58	19	13
AC Surcos	8	6	0	2	45	24	12
Pipwhis	8	6	0	2	36	24	12
Tamagotxi	8	6	0	2	31	25	12
Nuevo Taberna	8	5	1	2	44	27	11
Ke Oxtias	8	3	3	2	34	22	9
Kkjauri	8	4	1	3	26	21	9
Jotakabau	8	4	1	3	19	15	9
Garaje Oscar	8	4	1	3	27	26	9
Leya	8	2	2	4	31	32	6
Ganbelas	8	2	1	5	19	23	5
Cartonajes Igamo	8	1	2	5	14	30	4
Babajana	8	1	1	6	18	38	3
Potrosorri	8	0	2	6	15	35	2
Onaniereng	8	0	1	7	11	49	1
Nacex.S	8	0	0	8	14	92	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	8	7	1	0	38	16	15
Jako al rey	8	6	1	1	39	25	13
Fraguel Gol	8	5	2	1	37	23	12
Betrayer	8	5	1	2	33	19	11
DA Iriztu	8	4	3	1	45	37	11
Zotz	8	5	1	2	29	18	11
Irati STS	8	5	1	2	37	30	11
Lautherbrunen	8	4	1	3	35	34	9
Jay Holigans	8	4	0	4	33	24	8
Totor de Bolbogrado	8	3	0	5	33	20	6
Pepelus	8	3	0	5	31	35	6
Arrogoi taberna	8	3	0	5	32	47	6
Bukanak	8	2	1	5	23	47	5
Ainarexia	8	2	1	5	31	33	5
Komamdo alpargat	8	1	2	5	25	36	4
Epeh	8	2	0	6	20	28	4
DKB	8	2	0	6	22	37	4
Sobredosis de Claro	8	1	1	6	19	44	3

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Koka Juniors	8	6	2	0	53	21	14
Naranja mekanika	8	7	0	1	38	24	14
Estrella taberna	8	6	0	2	31	23	12
AT Celaya	8	5	1	2	32	20	11
Totem	8	5	1	2	43	12	11
Aurrera Bolie	8	5	1	2	38	25	11
Aldibi	8	4	2	2	41	23	10
Lorategi	8	4	0	4	47	23	8
Los Heredia	8	3	2	3	27	23	8
Insert coin	8	3	1	4	26	33	7
Txeyenex	8	2	2	4	28	32	6
Kamasutra	8	1	4	3	24	33	6
Borrock Roll	8	2	2	4	24	32	6
Aldapa Taberna	8	3	0	5	27	43	6
Etxe Mobil	8	2	1	5	20	40	5
Makai	8	2	0	6	21	53	4
Iluna Taberna	8	1	1	6	16	40	3
Elisabeth	8	1	0	7	19	55	2



TALDE GOLEATZAILAENAK. 8. ihardunaldian Rotor de bolbogrado izan da talde goleatzaileena. Arrogoi tabernari 18 sartu zizkion. Goleatzaileen artean, txapeldun orde Lorategi Potroak gelditu da. Hainbeste golekin jarraitzaileak gustora egongo dira!

A taldea
 Ke oxtias 7 - Pipwhis 6
 Jotakabau 1 - Onaniereng 0
 Sokoakoak 7 - AC surcos 3
 Babajana Sexy 2 - Kkjauri 2
 Argi Ibili 9 - Potrosorri 3
 Carton. Igamo 1 - Branka Tab. 3
 Ganbelas 3 - RR Tamagotxi 5
 Nacex.S 3 - Nuevo taberna 14
 Garaje Oscar 3 - Leya 3

B taldea
 Pepelus 4 - Jako al rey 7
 Jey Holigans 8 - Epeh 4
 Koman. alp. 5 - Orlando Piratas 7
 Irati STS 4 - Zotz 4
 Betrayer 4 - DKB 3
 Lautherbrunen 5 - DA Iriztu 5
 Rotor de Bolb. 18 - Arrogoi tab. 4
 Sobred. de Claro 4 - Ainarexia 4
 Bukanak 1 - Fraguol Gol 7

D taldea
 Estrella taberna 1 - Totem 6
 Aurrera Bolie 4 - Borrock Roll 3
 Aldapa taberna 3 - Lorategi 16
 Etxe Mobil 4 - Iluna Taberna 3
 Naranja Mekanika 4 - AT Celaya 3
 Txeyenex 5 - Insert Coin 5
 Makai 2 - Aldibi 10
 Elisabeth 1 - Koka Juniors 12
 Kamasutra 3 - Los Heredia 3



Hurrengo partiduak

9. ihardunaldia

Azaroak 29, Larunbata

- 8.50 Komando Alpargat - DKB
- 10.00 Irati STS - Ainarexia
- 11.00 Cartonajes Igamo - Ganbelas
- 12.00 Aurrera Bolie - Aldibi
- 13.00 PipWhis - Leya
- 14.00 Epeh - Sobredosis de Claro
- 15.00 Babajana Sexy - Nuevo taberna
- 16.00 Txeyenex - Makai
- 17.00 Lautherbrunen - Rotor de Bolbogrado
- 18.00 Argi Ibili - Garaje Oscar
- 19.00 Lorategi - Insert Coin

Iturripe A

- 11.00 Pepelus - Zotz
- 12.00 Naranja Mekanika - Kamasutra
- 13.00 Ke oxtias - Kkjauri
- 14.00 Etxe Mobil - Koka Juniors
- 15.00 Jotakabau - Tamagotxi
- 16.00 Jey Holigans - Arrogoi taberna
- 17.00 AC Sucos - Branka Taberna

Iturripe B

- 13.00 Betrayer - Bukanak
- 14.00 Estrella Taberna - Iluna Taberna
- 15.00 Borrock Roll - Elisabeth
- 16.00 Orlando Piratas - DA Iriztu
- 17.00 Jako al rey - Fraguol Gol

Azaroak 30, Igandea

Zaldibar

- 9.50 Onaniereng - Nacex.S
- 11.00 Sokoakoak - Potrosorri
- 12.00 Totem - Los Heredia
- 13.00 Aldapa taberna - AT Celaya

JON SARASUA (KAZETARI ETA BERTSOLARIA)

“Desberdintasuna balore

Gizartearen uniformizazio prozesuaren aurrean, balore gizartiarretan sinisten du Jon Sarasuak. Balore horien hariari tiraka, kooperatibismoa, hezkuntza, desberdintza eta indigenismoari buruzko zenbait gogoeta egin zituen asteazkenean Amaia antzokian. Jonek solaskide imaginario aparta izan zuen lagun: On Jose Maria Arizmendiarieta.

- Zer irizten diozu Arizmendiarietaren pentsamenduari?

- Arizmendiarietaren pentsamendua ez da fenomeno kooperatibistara mugatzen, askoz ere sakonagoa da. Gizakia eta ekintza soziala ulertzeko modu bat da. Mundua nora doan ikusita eta gaur egun indarra duen ideologia kontuan hartuta, nik egiten dudan erreflexioa zera da: gaurko kontestuan Arizmen-

diarietaren baloreak oso interesgarriak dira baina bere herdentzia ideologikoa ez da berritu. Eztabaidatzen eta pentsatzen jarraitu behar dugu Arizmendiarietak zabaldua-ko baloreak gaurko egoerari egokitzeko.

- Zeintzuk dira balore horiek?

- Elkartasunean egindako lanak gizartea eta mundua humanizatzeko duten indarrean sinistea, eta ez hainbeste egitura politikoetan.

- Kooperatibak lar idealizatuta daude?

- Eztabaida bat egon zen kooperatibek iraultza egiteko balio duten edo kapitalismoaren erreperkusio hutsa diren

hausnartzeko eta eztabaida hori gaindituta dagoela uste dut. Sozialismo errealak porrot egin du. Batetik, kooperatibak errealitate kritikagarriak dira, eta bestetik, interesgarriak. Zergatik? Sistema kapitalistak ematen duenaren aurrean, zentzu batzuetan behintzat, proposamen orijinala delako. Hitzaldian aipatu nuen bezala, gaur egun egin daitekeen apusturik onena desberdintza da.

- Zertaz ari zara desberdintza esatean?

- Kapitalismoak eta sistemak proposatzen duen uniformizazioaren aurrean desberdina dena,



“Euskal Herrian badugu estatu eta kapitalaren paradigmatic kanpo funtzionatzen duten zenbait errealitate: kooperatibak, euskalgintza edota ikastolak eta bestelako gizarte mugimenduak”

tu eta bultzatu behar da”

printzipioz, baloratu eta bultzatu egin behar da. Eta horrek balio du bai ekonomian, bai kulturaren eta bai hizkuntza desberdinak garatzeko orduan ere. Gero ikusiko dugu horrek zer ematen duen. Paradigma ekologikoaren ikuspegian oinarritu behar dugu. Ekologian aniztasuna da etorkizuneko apustua. Kulturaren eta ideologian gauza bera egin behar dela uste dut.

- Gizabideko ihardunaldi hauek hezkuntzaren ikuspegitik antolatu dira. Zer balore du zuretzat hezkuntzak?

- Ez dago errealitate desberdina sortzerik hezkuntza desberdina landu barik. Hori Arizmendiarietak ere esan zuen eta teoriarik denok onartzen dute, baina praktikan askoz ere indar handiagoa jartzen da garapen ekonomikoan hezkuntzan baino. Hezkuntza ez da behar bezala garatu baina hezkuntza des-

berdin bat egiteko baloreak baditugula aldarrikatzen dut.

- Hezkuntza kooperatibizatzearen alde akaso?

- Kooperatiba moduan antolatutako hezkuntzan sinisten dut, publiko edo pribatuan baino gehiago. Pribatu-publiko kontzeptua sistemak ezartzen duen zatiketa da. Horrekin dena uniformizatu nahi du, edo publikoa zara edo pribatua zara, ez dago besterik. Etorkizuneko apustua uniformizazio horretatik irteeta da eta horretarako gizarte antolatua behar dugu izan eta

ez beti estatuari begira eta kapital lukratiboaren logikan funtzionatzen duena.

- Autoantolaketa ez al da utopia bat?

- Utopikoa ez da. Herri honetan badaude esperientziak ez direnak bakarrik dirua ateratzeko; badaude esperientziak ez direnak egitura funtzionarioal hutsak. Sistema honetan bi logika daude: estatuarena eta kapitalarena. Nik uste dut Euskal Herrian badugula zenbait errealitate beste paradigma batzuetan funtzionatzen dutenak. Hor daude

ikastolen mugimendua, euskalgintzaren errealitatea, kooperatibak eta bestelako gizarte mugimenduak.

- Kooperatibek zer arlo hobetu behar dituzte?

- Kooperatiba gizarte berriaren aldeko intuizio humanista izan da, larregi begiratzen du garapen eredu europarrari. Gehiago begiratu beharko lioke errealitate indigenari, hau da, herrialde ez hain garatueta dauden esperientzia komunitarioei. Bestalde, euskal hezkuntza desberdin bat egiteko, hemen badugu nahikoa tresna: Hezibideko ikastola sistema, Mondragon Unibertsitatea edota Arizmendiarietaren baloreetan oinarritutako zenbait esperientzia. Edozein modutan, kritikak egin eta gero, kooperatibaren esperientzia eta batez ere sakonean dauden baloreak oso erreferentzia interesgarria dira niretzat. ■

“Kooperatibak larregi begiratzen du garapen eredu europarrari. Gehiago begiratu beharko lieke herrialde ez hain garatueta dauden esperientzia komunitarioei”



OPEL 

**Opel Vectra
TDI 16V berria.**

Potentzia ofiziala 100 zalditakoa bada ere, 119,4 zalditako indarra dauka potentzia neurketa homologatueta. ZATOZ ETA PROBA EZAZU!

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 • Eskatu Pabilioia • Tel.: 79 05 86 • ARRASATE

aste gazte

■ BEKAK

• Gasteizko Udaleko Ingu-
rugiro Ikerketa Zentruak iker-
kuntza burutzeko dirulagun-
tzak kaleratu ditu. Epea: aben-
duak 2.

• UPV-EHUK kazetari-
tzako 5. mailako ikasleentzat
praktika bekak kaleratu ditu.
Epea: abenduak 14.

• Joan March Institutoa-
ren eskutik, gizarte zientzia-
tan ikasketak burutzeko diru-
laguntzak. Epea: abenduak 18.

■ LANA

• Ordiziako Udalean, ATS
eta gizarte eta kultura ani-
matzailea behar dituzte. Epea:
abenduak 2.

• Osasunbideak (Nafarro-
ako Osasun Zerbitzua) kar-
diologia sailerako espezialis-
ta bat behar du. Epea: aben-
duak 8.

• Huarteko Udalak, lora-
zain bat behar du. Epea: aben-
duak 19.

• Oiartzungo udalak zen-
bait lanpostu kaleratu ditu:
itzultzailea, elektrikari espe-
zialitateko zeregin anitzeko
ofiziala, ur zerbitzurako zere-
gin anitzeko ofiziala. Epea:
BOEn argitaratu zain.

■ IKASTAROAK

• Dantza garaikidea: inte-
resatuta bazaude, eman izena
lehenbailehen Gazte Bulego-
an. Ikastaroa antolatzeko nahi-
koa jende dagoen jakin nahi
dugu.

■ LEHIAKETAK

• Oñatiko Burdinola
Kolektiboak antolatuta, komi-
ki lehiaketa; txuri-beltzean eta
ahal dala euskaraz. Epea: aben-
duak 19.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

Arrasateko Akordeoi Lehiaketak 97

Akordeoi lehiaketak

1 Akordeoilarien zirkuito musikala-
ren **lehenengo mailan** daude Arra-
sateko lehiaketak. Hautaketa froga
gogorrek gaintitu behar dira Gipuz-
koako eta Nazioarteko lehiaketetan
parte hartzeko baina, hala ere, akordeoi-
lari ugari saiatzen da urtero lehiaketetan
parte hartzen.

2 Reinbhoteren Suitearen **II. mugimendua** jo behar dute derrigorrez
Gipuzkoako Lehiaketako txikie-
nek. Eurek prestatutako erreper-
torioaz gain, antolatzaileek auke-
ratutako derrigorrezko obra bat jo behar-
ko dute lehiakide guztiek.

3 Gipuzkoako jaialdian izan ezik-
hemen akordeoilari guztiek jasotzen
dituzte-eta dominak eta
diplomak-, beste lehiaketetako
kategoria bakoitzean **hiru sari**
ematen dira. "Arrasate Hiria" nazioar-
teko lehiaketan: 500.000 pta. irabazle-
arendako, 250.000 pta. bigarrenaren-
dako eta 100.000 pta. hirugarrenaren-
dako.

4 Janne Rättyä-k **abenduaren 4an**
ekingo dio Euskal Herriko birari.
Janne iazko Nazioarteko Lehia-
ketaren irabazlea izan zen eta aur-
ten Euskal Herriko zenbait herri-
tan kontzertuak eskainiko ditu. Arrasate
eta Aretxabaletan bere maisutasunaz
gozatzeko aukera izango dugu.

5 Arrasateko **bost elkartetan** baz-
kalduko dute antolatzaile, nazio-
arteko akordeoilari eta epaima-
haikideek. SUDC-eko jendeak,
Jose Ramon Arkauzen ardurape-
an, Leintze, Kasino, Danok Bat, Alkar-
tu eta Txalaparta elkartetan eguneroko
bazkari eta afariak prestatuko ditu. Eus-

kal gastronomia ederto ezagutzeko auke-
ra izango dute partaideek!

6 **Abenduaren 6an**, bi zita garran-
tzitsu: Arrasateko Udalak akor-
deoilari Udaletxean egingo dion
harrera ofiziala eguerdiko
12:30etan, eta Gipuzkoako Jaial-
diko diploma eta dominen banaketa arra-
saldeko 5:30etan, Amaia Antzokian.

7 Nazioarteko lehiaketa azken fase-
an sartuko da **abenduaren 7an**.
Azken txanpa bukatu eta gero,
hurrengo eguneko galan jakin era-
gingo dira irabazleak. Ordura arte
urduritasuna izango da nagusi akordeoi-
larien artean, Arrasate Hiria denek curri-
culumean nahi duten saria da eta.

8 Azken gala **abenduaren 8an** egin-
go da. Nazioarteko eta Gipuzko-
ako Lehiaketako irabazleak sari-
tzeaz gain, ekitaldi berezia egin-
go da. Hondarribiko Eskifaia abes-



ezagutzeko hamar giltzarri

batzak eta Txanpa akordeoi orkestak Zuriñe Fernandez-en obra estreinatuko dute. "Ekhi" izeneko obra hau, akordeoi orkestra eta abesbatzarako konposatu den lehenengoa da. Datorren urteko nazioarteko lehiaketan Zuriñe Fernandez-en "Arnasa" obra, jo beharreko derrigorrezko pieza izango da.




Iñigo Aizpíolea, iazko nazioartekoan hirugarrena.

9 Batzorde exekutiboan eta teknikoan **bederatzi lagun**ek egingo dute lan. Gipuzkoako Akordeoi Konfederakundeak zuzendaritza aldatu duela eta, lau neska berri izango dira batzorde exekutiboan: Mari-bel Insausti, lehendakari; Maribi Urruzola, lehendakari orde; Lurdes Iza, diru-

zain eta Elixabete Iraragorri, idazkari. Talde teknikoa nazioarteko epaikideek osatzen dute: Mie Miki japoniarrak, Jose Antonio Hontoria donostiarrak, Friedrich Lips errusiarrak, Matti Rantanen finlandiarrak eta Jaques Mornet frantziarrak.

10 **Hamar urte dela** ospatu zen Arrasateko Akordeoi Lehiaketan lehenengo edizioa. 1987. urtea zen. Gipuzkoako Lehiaketa eta Gipuzkoako Jaialdia Arrasaten antolatu ziren. Lehiaketa maila eta ospe handia hartuaz joan zenez, Nazioarteko Txapelketa antolatu zen urte batzuk beranduago.



Gida 98

Bosgarren urtez **ARKOK GIDA KOMERTZIALA** kaleratuko du bertan Leintz Bailarako telefono erabilienak eskura izan ditzazun.

GIDAn agertzeko nahikoa da negozio bat edukitzea.

Zeure datuak ondo agertzen ez badira, edo GIDARI buruz zerbait esateko baduzu deitu **77 08 15** telefonora.



LASTER BISITATUKO ZAITUGU!



SAIOA GIMNASIOA

Zuzendari Teknikoa: Iñaki Muñoz
Kirol Tekniko Gorena • C.N. 3 D.A.N Entrenatzaile Nazionala



Eskaintza hau egiten dizu goza dezazun:

AEROBICa

Goizez eta arratsaldez
Ikasiak eta hasberriak

KARATE

Haurrak (5 eta 9 urte)
Infantilak (10 eta 13 urte)
Helduak

GIMNASIA

3.adineko
mantenimendua.
Goizez eta arratsaldez

SAUNA

SOLARIUMa

MASAIA

Osteopatia
Kirol masaia
Drenaje linfatikoa
Kiromasaia
Ziatikak

MUSKULAZIOA

Kulturismoa
Fitness
Kirol prestakuntza
Lesioen erreabilitazioa

SQUASH

Kontzeziño, z/g, tunela • ARRASATE • Tel: 79 97 31



Badago elkartzen
gaituen zerbait...



ARRASATE
KIROLAK

Arrasate Kirolak,
zure kirol denda.

**Kirol bakoitzerako
erantzun bat.**

Kontzeziño kalea, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 46 12/ 77 12 47

■ Beatriz Gereñu

ESKOLA POLITEKNIKOKO TELEFONISTA



Berea da, Eskolara deitzen duzun bakoitzean "Eskola, egunon" esaten dizun ahots goxoa. Zortzi urte daramatza 28 urteko legazpiar honek Eskolako telefono deiak hartzen.

Ezagutu nahi izanez gero, erraza da. "Informazioa" dioten geziek beragana eramango zaituzte zuzen-zuzen.

1.- Zein da zure horoskopoa?

Eskorpio.

2.- Sinestuna zara? Bai.

3.- Animalia bihurtzekotan? Zaldi.

4.- Zure akats bat/gauza on bat? Jenio txarra/pazientzia.

5.- Zerk lotsarazten zaitu? Enbidiak.

6.- Amets bat? Kanadara joatea.

7.- Zer kenduko zenuke mundutik? Pobrezia.

8.- Gertakizun historiko bat? Gizakia ilargira heldu zenekoa.

9.- Nor miresten duzu?

Gurasoak.

10.- Zeri diozu beldurra? Ekaitzei.

11.- Zeozer garbatzen zaizu? Momen-tuz ezer ez..

12.- Negar egin duzun azken aldia? Ez dut gogoratzen, baina filme batekin izango zen seguru.

13.- Zer falta zaio Arrasateri? Aparkalekuak.

14.- Eta zuri? Lotoa.

15.- Lanbidez aldatzekotan? Irakasle.

16.- Arrasateko gustoko toki bat? Uda-la.

17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Mendira joan.

18.- Zein egunkari irakurtzen duzu? El Diario Vasco.

19.- Gustoko janari bat? Arroza.

20.- Liburu on bat? Obabakoak.

21.- Filmerik onena/txarrena? Full monty gustatu zait.

22.- Musika talderik onena/txarrena? Bruce Springsteen/Spice Girls.

23.- Telebistako programarik onena/txarrena? Qué pasa pues!/Apelesena.

24.- Egin dizuten oparirik politena? Ordulari bat.

25.- Denbora libre zertan pasatzen duzu? Lagunekin eta familiarekin.

26.- Oporretarako toki bat? Menorca.

27.- Etxeko lanik gorrotagarriena? Plan-txa.

28.- Gomendio bat? Bakean dagoenari bakean utzi.

29.- Zerbaitegatik emango zenuke bizia? Maite ditudanengatik.

30.- 200 milioi irabaziz gero? Tira! Leku asko behar da egingo nukeena azaltzeko.



**Parques
y Jardines**

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Ttnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Arrasaten pisua salgai. Tel.: 79 22 92.

• Gesalibarren egoera onean dagoen baserria salgai. 3 solairu ditu, bakoitza 200 m²koa. Tel.: 79 97 35. 14.00etatik aurrera.

• Bergaran apartamentua salgai. 40 m². Sukaldea, komuna, egongela. Guztiz jantzita. Tel.: 76 05 88.

• Olaran kalean jantzitako pisua salgai. Tel.: 79 94 24. Gaueko 9etatik aurrera.

• Donostiako Amara auzoan pisua salgai. Eraikuntza berria, eguzki begian eta lasaia. 75 m². 19.000.000. pta. Tel.: 45 85 09. Goizean 9etatik 11etara eta Arratsaldean 19etatik 21era.

3. Errentan emateko

• Pisua alokatzen da Arrasaten. Tel.: 76 21 70. Gaueko 8etatik aurrera.

• Arrasaten pisua alokatzen da. Nahiz izanez gero logelak ere alokatzen dira. Tel.: 76 21 70. Arratsaldeko 8etatik aurrera.

4. Errentan hartzeko

• Alokatzeko pisu bila nabil. Merkea eta txikia. Tel.: 79 78 65.

5. Etxe konpartituak

• San Andreseko Errebuelta, 6 - 5. B. an jendea behar da pisua osatzeko.

• Arrasaten etxea alokatzeko edo konpartitzeko prest nago. Tel.: 71 42 86. Javier.

• Logela bat alokatzen da Arrasateko erdialdean. Tel.: 79 87 59. Tere.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Kontzeziñon garajea alokatzen da. Tel.: 79 54 07.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

• Kontzeziñon garajea salgai. Tel.: 79 23 38.

ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxe konpartituak
- Bestelakoak

GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatu
- Eman
- Hartu
- Galdu
- Aurkitu
- Bestelakoak

HARREMANAK

- Agurrak
- Kontaktuak
- Deialdiak
- Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen delitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100m²ko eta bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Bulegoa jartzeko egokituta dagoen lokala errentan ematen da Bolintxo ondoan (Arrasate Pasealekua). 52 m². Bi irteera ditu. Tel.: 79 02 52.

15. Errentan hartzeko

• Arrasaten lokal komertziala edo industrial hartuko nuke alokairuan. Tel.: 79 99 82.

LANA

17. Eskaintzak

• 32 urteko emakumea bulego edo etxeak garbitzeko gertu. Tel.: 77 00 26. Goizetik arratsaldeko 4ak arte.

• Esperientziadun neska gertu goizetan umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.

• Neska orduka lan egiteko gertu. Tel.: 79 77 91.

• Bergara Au pair. Ingalaterra, Eskozia, Irlanda, Frantzia... *au pair* agentzia batek eskaini dezakeen guztia gehi beste mila lanpostutan aritzeko aukera. Tel.: 76 26 06.

• Esperientziadun neska gertu umeak edo pertsona nagusiak eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 31 44. Miriam. Gauez.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 51 29.

• Andra euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Arratsaldez etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko emakumea gertu. Tel.: 79 45 16. Bego.

18. Eskerak

• Au pair bat behar da Ingalaterra-ko hegoaldeko Exeter herrian. Tel.: 79 82 09

• Sukaldari laguntzailea behar da. Tel.: 79 20 26.

• Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egi-

teko. Tel.: 77 09 03.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egi- teko emakumea behar da. 77 04 70. Gauez deitu.

• Bi ume zaintzeko emakumea edo neska euskalduna behar da. Tel.: 79 11 24. Mila.

19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Injinerutzako ikaslea DBH eta LHko klase partikularrek emateko gertu. Tel.: 79 33 39.

• Injinerutzako ikasle batek fisika eta matematika klase partikularrek emango lituzke. BUP eta UBI mailak. Tel.: 79 71 16. Goizez eta gauez.

• Alemanierako eta portugalerako klase partikularrek ematen dira. Maila guztiak. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko ordu 1etatik aurrera.

• Titulodun neska batek DBHko 3. mailako klase partikularrek emango lituzke erdaraz. Tel.: 79 79 84. Arratsaldeko 3etatik aurrera.

• OHoko klase partikularrek emateko gertu. Tel.: 79 98 68.

• Esperientziadun neska OHoko klase partikularrek emango lituzke euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 25 09.

• Titulodun neska gertu administratzaile lanetarako. Tel.: 907 94 06 67.

• Alemaniera ikasten hasi nahi baduzu, klase partikularrek emateko prest nago. Tel.: 79 82 42. Ainhitze.

21. Eskerak

• LOGSEko 1. mailako ikasle batek matematika, fisika eta kimikako klase partikularrek hartuko lituzke. Tel.: 79 70 36 edo 79 12 91.

MOTORRA

23. Saldu

• Ford Courier bat erosi edo Opel Midi baten truke hartuko nuke. Tel.: (94) 620 36 10. Gauez.

• Renault 9 GTL SS-T autoa salgai. Prezio ona. Tel.: 77 00 78 edo 77 22 15. Edurne edo Iñaki.

• GAC Kanowey motorra salgai. Egoera ona. Tel.: 71 44 45. Gaueko 10etarik aurrera.

DENETARIK

26. Saldu

• Bi mandodun Super Nintendoa salgai. 7 joku ditu. Prezio ona. Tel.: 77 10 82. Nestor.

• Bigarren eskuko trikiti txikia salgai. Piggini markakoa. Egoera onean. Tel.: 79 08 37.

• Komuneko manpara salgai. Egoera onean dago. 1.50 m. Prezioa: 12.000 pta. Tel.: 79 97 60.

• Conserban Roller karabana salgai. 4-5 lagunendako. Oso egoera onean dago. Tel.: 79 59 71.

• Yorkshire arrazako txakur kumeak salgai. Tel.: 77 04 84. Gauez.

• Boxer txakur kumeak salgai. Tel.: 79 92 79. Arratsaldeko Betatik aurrera.

• Oilagorretan trebea den setter baten txakur kumeak salgai. Tel.: 81 22 06.

• Egoera onean dagoen logela bat eta komuneko altzariak salgai. Tel.: 79 54 07.

• Lur enziklopedia salgai. 10 tomo. 30.000 pta. Tel.: (945) 24 70 31.

• Tosai markako kerosenozko berogailua salgai. Tel.: 79 82 36. Gauez.

27. Erosi

• Lau pistadun grabagailua erosiko nuke. Tel.: 79 41 97. Koldo.

• Bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. Tel.: 939 65 34 85. Maribel.

30. Hartu

• Zure hozkailu zaharra bota behar baduzu gu pasatuko garajasetzen. Tel.: 79 65 31. Maite.

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailu bat behar du. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

• Uribarriko parrokia, Arimazuri edo

Enguzki dorre inguruan erlojua galdu nuen. Tel.: 79 39 42.

• Arodun urrezko belarritakoa galdu nuen azoka inguruan azaroaren 4an. Balio sentimental handikoa da. Eskertuko da. Tel.: 79 69 50.

32. Aurkitu

• Irati taberna parean bizikleta bat aurkitu genuen. Zeurea bada, pasa zaitz bertatik.

• Peugeot auto bateko giltzak aurkitu nituen igandean Munarreko Nebraska tabernaren parean. Udaltzaingoa daude.

• Monterronen txandal fraka berri batzuk aurkitu nituen orain dela bi aste. Think Pink markakoak dira. Tel.: 79 40 15.

• Joan den igandean Leintz Gatzagako ferian emakumezkoendako antioju graduatu batzuk aurkitu nituen. Leintz Gatzagako Udaletxean daude.

• Lasagabaster jantxidenda beturrekoak eta giltzak utzi ditueana pasa dadila bertatik jasotzera.

35. Denetarik

• Ford Scort markako kotxea lapurtu

digute. Gris argia. SS-75 84-T. Urriaren 23an desagertu zen Eskoriatzan. Tel.: 79 37 68.

HARREMANAK

34. Agurrak

• Zorionak, Juanito, zure 70. urtebetetzean eta eskerrik asko pastelengatik.

35. Kontaktuak

• Euskal heavy-rock talde bat osatzeko baxularia behar dugu. Tel.: (945) 13 67 03. Jokin.

• Arrasateko rock talde batek baterajolea behar du. Punk/Oil! estiloa. Tel.: 79 79 35. Asier.

• 26 urteko mutil homosexuala naiz eta lagun taldea osatu nahiko nuke. Animatu eta Arrasateko 59 postakutxara idatzi.

36. Deialdiak

• Udalako Arteta baserrikoek kontu korrontea zabaldu dugu sutean ondutako baserria konpontzeko. Euskadiko Kutxa: 0010045181.



**ZUZEN-ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA**




Kataide poligonoa • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75

■ Horoskopoa

- **Aries** Eguzki izpiek burua berotuko dizute.
- **Taurus** Kontuz poltsikoetako zuloekin, gauza asko galduko duzu.
- **Gemini** Eskumuturra eta sudurra apurtzeko arriskuan zaude.
- **Cancer** Etxe zahar bat salduko dizu iruzurti batek.
- **Leo** Itsuen loterian 200 pezeta tokatuko zaizu.
- **Virgo** Ohean geratuz gero sorpresa ederak hartuko dituzu.
- **Libra** Ez zaitetz zoroetxe baten ondotik pasa. Badaezpada.
- **Scorpio** Arazo juridiko horiek kartzelara eramango zaituzte.
- **Sagittarius** Zaldibarreko partiduan berriro galduko duzue.
- **Capricorn** Zure belarriek ez dute sendabiderik!
- **Aquarius** Primerako astebukaera pasatuko duzu lagunartean.
- **Piscis** Kili-kili ugari egingo dizu zure lagun horrek.

■ Gurutzegrama



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 2. Iria, Uribarriko jubilatuetako lehendakariaren izena. 8. Zerbaitetarako aukera, ahal izatea. 10. Ur-tanta txikiz osatutako multzoa eguratsean eratzen dena. 11. Lawrentzioa. 12. Nigeriako hiria. 13. Txinako ibaia, Xingan Handian jaio eta Bohai golgora itsasoratzen da. 15. Agindu. 17. Piraten edari alkohikoa. 18. Amerika eta Groelandiako lurralde arktiarrean bizi den etnia bateko kidea. 20. Nekatzen ez dena.

Bertikalak 1. Borondate. 2. Dagoeneko. 3. (Ald.) Nafarroako udalerrria. 4. Trebe. 5. Euskal atzikia. 6. (Ald.) Une batean arnasa hartu ezina dela eta, sortzen den itotzeko arriskua. 7. Erromak su hartu zuenean, bertako enperadore zen. 9. *Honela* eta *horrela* hitzen laburdura. 14. (Ald.) Makila bati muturrean ezartzen zaion pieza txiki eta punta-zorro-tza. 16. (Ald.) Nekadura. 19. *Urrearen* bokalak.

Horizontalak: 2. Joakin. 8. Ahabide. 10. Hodel. 11. Lr. 12. Iia. 13. Liao. 15. Mann. 17. Ron. 18. Inuit. 20. Nekaezin.
Bertikalak: 1. Nahimen. 2. Jadanik. 3. (Ald.) Eio. 4. Abril. 5. Ki. 6. (Ald.) Ihoaldi. 7. Neron. 9. Hola. 14. (Ald.) Ziri. 16. (Ald.) Anu. 19. Ue.

HANKAPALO IKASTAROA

16 URTETIK GORAKORENTZAT

Hankapaloekin zutik ibiltzen ikasi eta trebea bazara dantzan bukatu zeike!

Abenduaren 13 eta 20an
2 zapatu arratsaldetan (3etatik ilundu arte)
Matrikula: 1.500 pta.
Bazkideak 1.200 pta.

Izen ematea AEDn 77 12 28 telefonoan.

AED GAZTEAK





Munduari Bueltaka saioak Ipar Irlandara joko du asteazkenean

Asteazkenean eskainiko den *Munduari Bueltakan*, Ipar Irlandari buruzko diapositibak ikusteko aukera izango duzue.

Elkarri taldeak bidaia antolatu zuen abuztuan Ipar Irlandara. Bidaia horretan Fernando Lete antzuolarrak parte hartu zuen eta berak konatatutako digu zer nolakoa den Ipar Irlanda. Ikusiko diren

diapositibak, berriz, Jose Ramon Kintana legazpiarrak ateratakoak dira.

Giro politikoari erreferentzia egin ezazik, Belfast eta Derry hiriak zelakoak diren ere erakutsiko dizuegu: bertako edifizioak, janaria, giroa... Horretaz gain, bidaiaren lehen geralekua Dublin izan zenez, Irlandako Errepublikako hiri-

buruak zein itxura duen ikusgai izango duzue.

Bidaian parte hartu zutenek Ipar Irlandako alderdi politiko desberdinekin harremanetan jartzeko aukera izan zuten; besteak beste, unionistekin eta errepublikarrekin. Diapositibetan argi eta garbi ikusiko dugu zelako zatiketa dagoen Ipar Irlandan.

Arrasate Irratia 107.7 FM

ZAPATUA

- 9:00 **Albistegia**
- 9:30 **Musika**
- 10:00-11:00 **Jailarai** haurrendako programa. Maider Errarte eta Belen Aranbarrekin.
- 11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoak, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaiola eta Eusebio Iñarrarekin.
- 12:00-14:00 **Bi zoro eta zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUERDIZ

- 9:00 **Albistegia**
- 9:30-11:00 **Goizoro**
- 14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

- Astelehena**
- 21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

Asteartea

- 22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

- 22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek eginitako magazina.

Osteguna

- 22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaittin Allenderekin.

Ostirala

- 22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasola eta Pedro Costarekin.
- 23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 29	ASTELEHENA, 1	ASTEARTEA, 2	ASTEAZKENA, 3	OSTEGUNA, 4	OSTIRALA, 5
Astean zehar eskainitako programa interesgarrienen errepikapena	13:30 Astebete (Errepik.)	13:30 Mondrasport . (Errepik.)	13:30 Buru astinduz . (Errepik.)	13:30 Tertulixan . (Errepik.)	13:30 Kukaratxa Motel (Errepik.)
13:30 Kukaratxa Motel	20:00/20:30/21:00 Berriak . Patxi Montero.	20:00/20:30/21:00 Berriak .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	19:15 Kukaratxa Motel . Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak .
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport . Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala eta Uda-Mondra derbia sakonean.	21:30 Buru astinduz . Musika saioa.	21:30 Munduari bueltaka . Maria Agirre.	20:00/20:30/21:00 Berriak .	21:30 Astebete . Patxi Montero. Astean zehar jasotako berrien laburpena eta gai interesgarrienen sakontzea.
14:45 Lotsa Barik . Gonbidatua: Ainhoa Agirreazaldegia.				21:30 Kukaratxa Motel .	



Aste honetan ere, Zarugaldeko koadrilaren beste abentura bat dakargu foto zaharren txokora. Aurreko astean Baionara egindako bidaiaren berri eman bagenizuen, oraingoan Lizarra aldera egin zutena kontatuko dizuegu.

1975ean, eta beti lez abuztuan, autobusean sartu eta Nafarroara joan ziren Zaru-

galdeko lagunak. Lizarra ondolan dagoen herri batean bazkaldu zuten 250 pezetatan. Merke bazkaldu bai, baina goseak geratu ei ziren. Bazkalostean Urbasara joan eta "Balcón de Pilatos" aurrean argazkia atera zien Joxe Mari Uribarrenek. Gainean gurutzea dutenak hilda daude.

Argazkian, goitik hasita: Leandro Azkargorta, Fermin Vitoria "Sestero", Felix Gallas-

tegi "Olia", Maximo Arana, Valeriano Arana, Joakin Iria, Joxe Arana, Ramon Etxabe, Iñaki Korta, Pedro Joxe Elortzu, Karmelo Zubillaga, Joxe Madinabeitia "Zahatza", Xabin Amozarrain "Txiki", Joxe Lasaga, Segundo Barandiaran, Juan Azkargorta, Faustino Uribarren eta Tomas Lezeta.

Behean: Eugenio Zugasti, Luis Rubio, Rosalio Zubiza-

rreta, Juan Jauregi "Paloma", Zosimo Olmedo, Luciano Jauregi "Pitxon", Gabriel Okina, Esteban Arana, Bixente Zubizarreta, Atilano Ramos, Pedro Iñarra, Bixente Iturbe, Joxe Etxagibel, Leandro Uribarren "Oloste", Paulino Uribarren eta Julian Llodio.

Urtea: 1975

Informazioa: Joakin Iria.

Jon Sarasuaren

"Biziaren bizkuntzaz"


liburuaren aurkezpena eta mahaingurua

Hizlariak:

- Julen Arexola-Leiba
- Joxe Angel Iriagarai "Zenbat Gara" Elkarteko kidea
- Jon Sarasua

Abenduaren 4ean (osteguna) • Arratsaldeko 7etan, Monterronen





Volvo

Auto Suecia, S.L.



Mercedes


Izar Autoak, S.L.



Hyundai

Musakola Autoak, S.L.

Hemen zure amets guztiak bete daitezke



Zatoz eta bete itzazu!



Nissan

Aldibi Autoak.



Mazda

Musakola Autoak, S.L.



Chrysler

Co-Car, S.L.

- Ordezko pieza originalak • Salmenta osteko zerbitzua • Finantzaketa zure neurria
- Aseguru desberdinak zure zerbitzura • Autoen alokairuen enpresa eta renting-a
- Aukerako 100 autotik gora, marka guztietakoak • 3.000 m² automobilarari eskainita



Zigorrola, 1 • 1 pabilioia • ARRASATE
Tel.: 71 20 02 • Faxa: 79 65 65

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



Errealitate bihurtzen diren ametsak...



FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42